



Bertsio informatiko honen egilea: Josu Lavin; Urkiola, 1-1C 48990 - Getxo (Bizkaia).

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/E/Etxahun.htm>

BERTSOAK ETA KANTAK

Pierre Topet «Etxahün»

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

ÜR X'APHAL BAT

1805-1808

Ürx'aphal bat badügu herrian trixterik,
Nigarrez ari düzü kaloian barnetik,
Bere lagün maitiaz beit'izan ützerik:
Kuntsola ezazie, ziek adixkidik.

Oi! ene izatia dolorez betherik!
Mündian ez ahal da ni bezañ trixterik,
Ni bezala maitiak traditü dianik,
Habil Amodiua, hürrün ene ganik.

Traditü zütüdala deitazüt erraiten;
Bata bezañ bestia biak akort ginen,
Ene bihotza düzü zuri bethi egonen:
Kitatü behar zütüt lotsaz etxekuen.

Oi ene traidoria zer düzü erraiten?
Elhe faltsü erraitez etzireia asetzen?
Ene flakü izanez zira prebalitzen,
Hortarik ageri'zü nunko seme ziren.



Maitia nahi zütüt segreki mintzatü,
 Arrazuak dereitzüt nahi esplikatü;
 Bihotz oroz züntüdan osoki maithatü:
 Kitatü behar zütüt, hiltzera nuazü.

Thunba bat nahi dizüt lürpian ezarri,
 Ene khorpitz trixtia gorde mündiari,
 Ene ixter begiak ditian liberti:
 Akort izanen zira zü ere haieki.

MÜNDIAN MALERUSIK

(version manuscrite de 1827)

Chaçons nouveles pour etchabon de Barcus

Mündin hanits malerus arauz baziraie
 Bena ez ni bezaiñik ihur behinere;
 Ene fons propiaren izan nahiz jabe,
 Tristia ezari niz ihon lürrik gabe.

Desertüko ihizik jenten beldürrez
 Prekozionatzen (dira) ebiltera gordez;
 Nik hurak imitatzen gaxoa nigarrez
 Ene bizi tristiren konserbi beharrez.

Hamar urthe hontan bizi niz esklabo,
 Erdiak presuetan bestik sordeisago;
 Jeloskeria baten süjetetik oro
 Ni ere inpatient gerthatürrik gero.

Hogei eta bi urthik konplitü egüin
 Hartü nin emastia ene zori gaitzin,
 Eraiten ahal beitüt izan zeitala jin
 Ene ürkha bülharra gorderik alzo pin.



Ezagütü nianin zer nian erosi,
 Nahi ükhen nin bortzas korrejierazi;
 Bere jabe puisantak hari althe jalki
 Eta ni inozenta gaztelin etzeki.

Ene absenziari agertü aproba
 Zuñen fidelki zian eraman denbora;
 Harek eni doblatü bihotzeko herra
 Bai etare kausatü galtzeko malürra.

Ene izterbegia bahin emazia
 Herresterazi gabe nik nian flakia;
 Bestek eraman derik hik behar kolpia
 Bena kübera dirok orano hartzia.

Banta ahal aiteke non nahi konpañan
 Hik eman eskandalak exarri din suitan:
 Galdü dela bi lexü eta bi gizon galant
 Bai etare thonatü hirur leñü xarmant.

Ene esposa maitia eta flakia
 Koki batek dizazün nahas zenzia,
 Galerazi naizü ni eta etxaltia
 Malherus erendatü oro familia.

Ene espus maitia egin deizüt falta,
 Agüri da frütia ezin dirot ükha;

Bena zük bazünü ükhen pazenzia
 Hori zatian aisa sendo zeitin gaitza.

Hamar urthez deitazü eman bürian min,
 Bostez egonerazi aldiz gastelin;
 Sekursik eman gabe nahiz han hil nendin,
 Halako emazia nork sofri saihetzin?

Hamar urthez düzüla diozü sofrütü;
 Ene osaba jauna kausa izan düzü;
 Nitán izan espaliz jin dena agertü,
 Behar beitzünüki(a)n gaztelin finitü.

Musde Harixabalet jaun erreтора
 Etzünin etzekiten ogendant lioba,
 Arauz sinhexi düzü ikus ondón obra
 Jauna ezarizozü ziharenekila.

Ene aita fidela aurhidik hareki,
 Aberastü zirre ene malürreti,
 Prozesak eman eta defaultak eraiki,
 Arrüsas etzaltiak ziek ere ebaxi.

Ene sorthe tristiri gizon gastiak so,
 Eskont gei badüzie ez ezar esklabo,
 Emaztik ükheitekoz nik bezalako,
 Egin zitaie aphez edo jon soldado.



Emazten dohaña bethi birjina,
 Jiten ezpazaizie üzta ereña;
 Enian ixusirik haren exospena
 Sonia ez ereitia datila hobena

Hanits minzatü nüzü enetsaien kontre
 Nahi bada gezürük ez erran batere,
 Bena ene ogenak badütüt nik ere
 Jinkua dakhigüla gertha pharkazale.

Barkoseko herrian ez xerka etzahon
 Haren hatzaman nahiz zabilzenak ondon
 Bere xantoren honzen ari da Igelon
 Hain olhalte ederrik ezpeita Ziberon

DESERTÜKO IHIZIK

(d'après le manuscrit Péria. Musée Basque MS 64-9)

Version manuscrite de 1833 du poème

Mündian malerusik

Desertüko ihizik, Badabilza gordes
 gizonen arrakontrik, galditzan Beldürres
 nik hura(k) imitatzen, gaxua nigarres
 ene Bizi tristiren, konserbi beharres

Hamar bat urthe huntan, Bizinis esklabo
 erdiak presuetan, Bestiak gaiskigo
 jeloskeriabaten, süjete(t)ik oro
 nahi gabes izan, laiduen sorhaio

Hogeita Bi urthiak konplitü egüin
 hartünin emastia, en(e) zori gaitzin
 erraiten ahal Beitüt, izan zeitala jin
 ene ürkha Builharra Beraren alzopin

ezagüttü nianin, zer nian erosi
 nahi ükhen nin Bortzas korrejierazi
 Bere jabe puisantak, hari althe jalki
 eta ni inozenta — gastelin etxeki



ene absenziari, agertü aproba
 kuiñen fidelkizian eraman denbora
 harek eni doblatü, Bihotzeko herra
 Bai etare kausatü, galzeko malürra

ene ister begia, Bahin emastia
 herrestatü gabe, ene flakia
 Bestek eraman derik, hik behar kolpia
 Bena kübera dirok, orano hartzia

Hire skandalak, emandian suitan
 ene lagün flakia, ingana ezan
 galdüdük bi lekhü, bi gizon galant
 Bai eta thonatü, hirur leñü xarmant

ene lagün maitia, eta flakia
 Libertibatek deizü nahasi zenzia
 hares ni galerazi, eta etxaltia
 malerus errendatü, oro familia

ene espüs khexia, nik egin ogenes
 hori düzü zauria, estaitiana hers
 herrezda sen(d)otzia, ahastera üstes
 eta nabastarrien, algarri pharkatzes

Hamar urthes deitazü eman bürían min
 haietarik Bostes, etxeki gastelin
 sekursik egin gabe, nahis han hilnendi(n)
 halako emastia nurk sofri saihetzin

Hamar urthes estüzü, nigati sofrütü
 ene osaba jauna, kausa izandüzü
 nitan izan espalis, jindena agertü
 Behar Beitzünükian, gastelin finitü.

musde haritzabalet, jaun erretora
 etzünin etxekiten, ogendün lioba
 araus sinhexidüzü, ikhus ondon obra
 jauna ezarizozü, zihaurenekila

Besten penitenziak, deitatzü eragi(n)
 ogendünak etxen, ni aldis gastelin
 nik deusnütinen jaten, lotzen ene ohin
 ene desohurutzen, trankilitatin

ene zorthe tristiri gizon gastiak so
 eskon gei badüzie, ez ezar esklabo
 emastik ükheitekos, nik Bezain khario
 egin zitaie apthes, edo jun soldado

emasten dohaina, Bethi birjina
 agertzen etzaieno, üsta ereina
 enin ezagütürük, haren ekhospena
 sonja ez ereitia, datila hobena

Jüstizia züere jüstozirade
 püsantak zaitzü xahü goithiak kupable



zure jügamentiak, halako dirade
nihau etxekinaizü, Borogazale.

hanits minzatü nüzü, exaien kontre
nahis estüdan erran, gezürrik batere
Bena ene ogenak Badütüt nizere
jinkua dakhigüla agi pharkazale

adio ene haurra(k) gaxo ogen gabik
zien aita etamak, malerus ezarik
estitzuela segi, amaren exenplik
zien prudentzietzas, imita Jesüs Xrist

Barkoxeko herrian ez tzerkha etxahon
haren hatzaman nahis, zabilzanak ondon
Bere khantoren hunzen, arida igelon
halako olhalterik, espeita ziberun

fin du copie des chansons ci dessus
mentcione topet dit etchahon
(au crayon) Legouvé parisekoa
libürü egile handi
bat hünat jin
beharra atzo
zenbait bersü
harendako.

ETXEHUNEN KHANTIAK

Version de *Mündian malerusik*
tirée du manuscrit des frères Chaho
et appartenant à M. de Souhy

Mündin hanix malerus araus bazirie
Bena ez ni bezañik ihur beharrere
Ene emastiaren nahiz izan jabe
Gaxua jarririk niz ihun lürrik gabe.

Desertüko ihisik gizonen beldürrez
Prekauzionatzen dira gorde beharrez
Hurak nik imitatzen gaxua nigarrez
Ene bizi tristiren konserbi beharrez.

Hamar urthe huntan bizi niz esklabo
Erdiak gastellian, bestiak gaiskigo
Jeloskeria baten süjettetik oro
Nahi gabez izan adarren sorhaio

Hogei eta bi urthik konplitü egüin
Hartü nin emastia ene zori gaitzin
Erraiten ahal beitüt, izan zaitala jin
Ene ürkhä bülhürä, beraren alzopin.



Ezagütü ninian, nurnian erozi
 Nahi ükhen nin borxaz korrejierazi
 Bere jabe puisantak hari althe jalki
 Eta ni inozenta gastellin etxeki.

Ene absenziari agertü aproba
 Zuñen fidelki zian eraman denbora
 Harek eni doblatü bihotzeko herra
 Bai eta ere kausatü galtzeko malhürra-

Ene isterbegia bahü ene etzaia
 Therrestatü gabe ene emaste flakia
 Bestek eraman dik hik behar kolpia
 Bena küpera diok orano hartzia.

Hire libertinajik eraman din suita
 Hire ganat gogatzez ene emaste flakia
 Galdü dük bi etxalte bi gizon gallant
 Bai eta ere thonatü hirur leñü xarmant.

Ene lagün maitia eta flakia
 Libertin batek deizün nahasi büria
 Gallerazi naizü ni eta etxaltia
 Malerus errendatü oro familia.

Hamar urthez deitazüt eman bürian min
 Haietarik bostes etxeki gastellin

Sekursik egin gabe nahiz han hil nendin
 Halako emastia nurk sofri saietzin.

Ene aita krüdella anaie desnatüratik
 Aberastü zideie ene malhürretik
 Prozesak eman eta ni kondemnerazi
 Baieta arte hortan bi etxalte ebatzi.

Ene sorte tristiri gizon gastik zo
 Eskuntgei bazirie es izan esklabo
 Emastik ükheitekos nik bezain khario
 Egin ziteie aphez edo jun soldado.

Musde Harixabalet jaun erretora
 Etzünin idereiten, ogendün zure lloba
 Arauz sinhesi düzü ikhus undun obra
 Jauna begira ezazü zihasurenekilan.

Besten penitenzia deitazüt eragin
 Ene etzaia exen, ni aldiz gastellin
 Nik deus nütinen jaten, etzaten ene ohin
 Orai aldiz nabilazü goziarekin.

Adio haur maitiak, gaxo ogen gabik
 Aitak eta amak triste ezaririk
 Estetzatziela jarraiki haien exenplik
 Zien prüdenzietzas imita Jesús-Xrist.



Barkoxeko lürretan ez xerka Etxehun
 Haren atzamailiak beitätbiltza undun
 Bere kantoren hunzen arida igelun
 Halako olhalterik espeita Ziberun.

BI BERSET DOLORUSIK

Bi berset dolorusik nahi dizüt khantatü,
 Plazer düzielarik, jente hunak, behatü.
 Berrogeita lau urthez ni izan persegitü,
 Nun etzaitadania familia jelostü,
 Oroz arnegatürrik nahi nüzü phartitü.

Ene persegizalen lehen süjeta zer zen,
 Eskrüpülariekin dereiziet erranen:
 Aita batek taka hau zian bere hurraren,
 Haren egiteik gabe ni amak sorthü ükhen,
 Ezpeinitzeion aski jiten zeiztan primajen.

Ene gazte denboran ez lagünak bezala:
 Hurak txostakan eta ni nigarrez ardüra.
 Entzünik egüzaita aitak bildü zeitala
 Bere hiru etxaltez ene desprimützera,
 Hüllan ezarri nintzan fi-gaxto egitera

Hartü nin emaztia aitak desiratia,
 Ustez ükhenen nian halaz haren bakia;
 Bena egin zilakoz haren althe jartia,
 Eginerazi zeitan funtsen partajatzia,
 Presun jan erazteko amak ützi phartia.



Bost urthez presuntegin egon niz inozenki;
Emaztia xalanteki, harez nintzan jelosi.
Anaie batek zeitan bi lekhü ordeñüz ützi,
Ber denboran aurhidek hurak fraudaz ebatsi,
Haren ordeñü huna beitzien hautserazi.

Ni Ajenan bi urthez, libre nintzala ustez,
Bena aita orano ez ase mendekatzez;
Jaun horier galthatü ükhen otoritatez,
Presu begiratzeko librantxaik ükhen gabez,
Eta ere edüki hamar bat hilabetez.

Ni Ajenan libratü, etsaien artin sarthü,
Hunak galdürrik, haurrak dohakabe baratü,
Eni hen ikhustiak odola alteratü;
Atzione triste bat süjet hartarik heltü,
Harzara jüstiziak ni berriz presu hartü.

Gaztelin nintzalarik biziaz etsitürrik,
Promes bat egin neion sendo nahiz Jinkuari,
Kitatüren nütila hunak eta uhuriak,
Mündü huntako plazerak, haurrak ta emaztia,
Bai eta segitüren zelilako bidia.

Hamasei jakiletan zortzi falsü banütin,
Her behatü balira galtzia segür beinin.
Zelüko Jinko Jaunari promes neron egin,

Ezarten banündian jaun haiez libertatin,
Enintzala egonen ene etsaien artin.

Bost urthe igaran tit prozeskan tentatürrik,
Bihotzez enialarik herria kitatürrik;
Ene haur maleruser zerbeiten ützi nahiz,
Bena ezin izanez deüsez satifatürrik,
Orai arren banua oroz arnegatürrik.

Nik dütüdan xangriak ene eskandaleti,
Ezpeinintzan ebili Jinkuaren bideti:
Deliberatü ükhen dit juraitia pelegri,
Adio sekülakoz erranik herriari,
Haurrak deitzodalarik gomendatzen Jinkuari.

Zelüko Jinko Jauna, hau düzü mementua,
Kunplitzen betereizüt egin neizün botua,
Kuntre nian denboran ene lagün gaxtua
Zük hedatü zünian ene althe besua,
Bestela presuntegin hil behar nin, gaxua.

Pharkatzen dit etsaier eni sofri-erazler,
Hala nula beiteie Jinkuak egin berer,
Bena eztit pharkatüren eniak dütiener,
Nun eta ezütien errendatzen ene haurrer,
Berset horrez mintzo niz küñat eta aurhider.



Ene lehen aizua, hi, eskandal gaxtua,
 Orai khentürrik dükek ene ephantxügua:
 Kita-ezak ingoiti ene espusa gaxua,
 Badik bai hire ganik aski malerusgua,
 Eztizioiala gal-eraz senharra ta Jinkua.

Adio ene lagüna urthuki nündüzüna,
 Pharkatürrik dükezü eni egin ogena.
 Edükazü prüdenki alhargüntsen züzena,
 Haur trixte hoier egin ahal diokezüna,
 Beste mündian gitin oro hel algargana.

Musde Alkhat Barkoxe, zütan dizüt sinheste,
 Zuri egiten deizüt ene photerez trite,
 Ene haur maleruser aita jar zakhitze,
 Trite haiez balia haien etsaien kuntre,
 Zure karitatia Jinkuak orhit düke.

Ezpiritü saintia, orfeline althia,
 Zuri egiten deizüt haurrez gomendatzia;
 Etziezü mankatüren haier trixte izatia,
 Zük erakuts-izezü saintüki bizitzia,
 Beste mündian dezen ükhen alagrantzia.

Abelen denborati eta süitan bethi,
 Jinkuaren haitatiak ziren kürütxiareki;
 Bena ezarten zütin konfidantziareki,

Mündiaren huñ petan zaudelarik ümilki,
 Hitz hoiez haur maitiak orhit zitaie bethi.

Eztizüt nahi hunik ez eta uhurerik,
 Mündü huntan gozatü, Jinkua bera baizik.
 Adio arren ene hunak bai eta uhuriak,
 Askazi, adixkide, haurrak eta bestiak,
 Oro üzten zütiet, segitzeko Jinkua.

Ene alhaba bakhotxa, etxekan üsatü kondüta,
 Küñater beria eman, haurrer Jinkuren kreinta;
 Senharraren hun izan, zaharrak errespetatü;
 Plega hadi gazteti nahi gabe orota,
 Gaizkiren beldür izan, Jinkua guri so beita.

Adio Barkoxtarrak, zahar eta gaztiak
 Heben jente praubiari ürrikal zidienak;
 Zien gomendietan, üzten tüt ene haurrak,
 Ihuren sekursik gabe diren malerus hurak,
 Jinkuak badakike ziek egin hunkiak.

Ene haurrak adio, seme alhabak oro,
 Josafateko sorhun arrakuntra artino!
 Ükhen izozie bethi Jesüsi amodio
 Heben ükhena gatik aphür bat eskarnio,
 Han sendotüren dira zien zauriak oro.



ETXAHUNEN BIZITZIAREN KHANTORIA

1834

(La chanson de sa vie)

Monsieur le Procurur du Roy il y a queque temps
que vous m'avois un honneur singulier en me fai-
sant
coumparetre a devant un parisien n'étant capable
de vous satisfaire alors je vous avois promis
de vous donner l'histoire de ma vie par chaçons
Basques avec la traduction francoise dont je tardé
de vous tenir ma promesse jusque le momant,
connessant indigne de coumparaitre davant vos
yeux
sité
mais aujourdhy mon incapacité au coté ma neces-
sité
me força de jeter à vos pieds en vous demandant
une grace en le dernier versset de mes tristes chan-
chons.

Musde Clerice jauna Badizü denbora
zure salütatzera, jin gein ninzala
hitzaman ükhen neizün dakizün bezala
Ene bizitziaren, koblas ezartera
egün huna nitzaizü kopiarekila

Etxahonen zorthia izanda aiphatü
mündian gütik dila haboro soffitü
ene persona tristik hurazin kausatü
aitetamer beininzan haurreti hügüntü
edertarzünes praube, ninzalakos sorthü

ene lehen urthia, nin karzeratia
amak idor bihotza, bai eta thitia
ni khüñati marrakas beinian gosia
amak ene nigarrez ez aldiz anxia
nahis eginlizadan jinkuak deitzia

ene biden urthian banunduen xüti
desprimatüs khexünin arrebabateki
eramaiten beitzetan ogia esküti
eta nihau tratatzen, ardüra krüdelki
ikhusirik amari etzeiola gaitzi.

hirur gerren urthekos, ninzan elhestatzen
nula tratatzen nüandin, arrebak erraiten
bena hari gezürak, hobeki sinhesten
ardüra beitzeritan, nigar eragiten
amak ixil artino, nindian zehatzen.

laurak kunplitü gabe, banian anaie
zaflerasten beinüandin, arrebak herere
gero egiten banin, nik haier deusere
amak haier pharkatzen faltak bethiere
eta ni erhakatzen, pietate gabe.



Bostak nütianekos, aitanin ordükos
 ene figüra tristis, hasirik ondikos
 etxenko bestik ere, ikhus aldi oros
 hari enzün nausetzas, eni injüríos
 mesperetxü geibaten, ninzan heki geros

Bethe nütinin seiak ama ene engrat
 hari plaser egiten, ni ari ahalas
 eta harek ordari aurhider ophilak
 apairietan ere hobe haien phezak
 üdüri ni haurretan, nündiala bastart

Bethe nütinin zaspi izan ninzan hasi
 amaren zerbüttxatzen, ahalas ümilki
 lanik zianin haurren, mania nik bethi
 gero beste aurrhider, gust egitegati
 gaiski salzen nündian ene aitareki

zortzi gerren urthia nian eskolako
 nik hanere zorthia, etxen bezalako
 etxen esklabo dena, beita kanpun niatho
 halakuen khidiak bethiere gaisto
 hartakos nik han ere esprabia franko

Bederatzü gerrena nin nahin apestü
 nahis aita etamer, ephaxüti khentü

bena ez lagünzera, nik hurak gogatü
 jinkuak eman donna, nitan nül agitü
 ene suita tristik, beiterit markatü

hamar gerren urthia nian xangrireki
 aitak enündilakos, eskola erazi
 nahi beinündin ordin travaillaerazi
 eta es nik indarrrik, haurrin hazis gaiski
 ordin haren mendekik, izan zeistan hasi

hameka gerrenekos, nin aita pharkatzen
 hari khausitü nahis, indarra bortxatzen
 harek errekunpensa, zeitana egiten
 egisaitak beinündin, primü bere fontsen
 ene desprimützia, zeritan tzekhatzen

hamabi gerrenian, ni goizik lanian
 ustes aita kontriri, khausitüreninan
 harek beste aurrhidik, üsten aiserian
 eta halere haien obretzas lorian
 aldis nik jaten neron, arthuri dolian

hama hirur dena nin mithileki lanin
 ustes aita pharkatzes irabaziren nin
 harek zeitan eskerrak pharkatünianin
 ene odol agría, sobera errezin
 ene osagarria, galerazi beitzin



hamabost gerreneko, ni es deusetako
egoitera ez ausat etez hun laneko
mithila, odrereki lanin bortxatzeko
edo eta bestela, ene zaflatzeko
halere nik hobena, hura enetako

hamaseiden urthia, nin desolatia
hilik ama handia, nik nian althia
gerosti etxenian, hun ene trenpia
ene errekitia, nitzas trüfatzia
eta beste haurrena salda berhezia

hamazaspi gerrenin ni üsatü treñin
ene etxeko kontren, mesperetzien pin
neskatotiobat zian, aítak hartü ordin
eni dolüzeitala, erakasten beitzin
hura beinin maíthatü, bien zori gaitzin

hamazortzi gerrena nianin kunplítü
ene bekhatia zen izan püblikatü
eta ni ene aítas jinkuak pünitü
egüsaita beinian, hares desgustatü
ene desprimützera zeritan gogatü

hemeretzü denian, primajen xangriti
abanzü egin nian ene büris gainti

hirur etxalte beinin galdü aítagati
eta es amak ere, nahi primürazi
nik nahi eninaren, espüsatzes baizi

hogeiak nütineko, nik khidiak galtho
nun ziradin solasak, hetat juaiteko
eta nik aldís gusta, nihau egoiteko
ene phena xangries, nigar egiteko
ene gaste denbora ükhendüt halako

Hogei eta bat denin, egin nin khortia
amuriorik gabe o gaxo tristia
ustes erosten nian aítamen bakia
erosi ükhen nian ene thürmentia
nahi gabes kitatü ene sor lekhia

hogei eta bi denin eskuntüs dolünin
ordükos beinakian, zernian saihexin
ene osaba ere hilzeritan ordin
lehen khentü primajen berris eman gein
ene aítazas baizi, emaiten beitzütin

hogeita hirur denin jin zeristan hunak
osabak hilzerakun, eman gei zeistanak
aítak beste hurreki erosi tzikanak
eneki prozeskako, hun ziren züzenak
eta dobla erazi, nik nütian phenak



hogeï eta lau denin ama hil zeritan
 eta aita benjatü aurrhideki bertan
 jüstizias partajü, galthatü zeritan
 nik nahi akumudüs beria harzezan
 bena harek nahigo, ni despendios jan

hogeï eta bost denin, banian bihots min
 aita fraudas sarthürrik, ordeñüs ükhenin
 hari bühürtü nahis, ni prozeskan ordin
 egünak jüstizian, eta gaiak bidin
 eta ene aizuak emastiren ohin.

hogeita sei denian banin bost etxeko
 ni galnendin nahian, ene beretxeko
 lus falsübat zeitan jin skandaletako
 ezin pazenziatüs nik emailia jo
 eta süjet hares, harerazi presu

kunplitü nütianin, hogeï eta zaspï
 emastis nündin aitak, delonza erazi
 ene müble kabalik, aurridek edeki
 ni nahis ene hunen, exaier edeki
 kaxota xilatürrik, kanpulat eskapi

kunplitü nütianin hogeï eta zortzi
 exaiak enen jaten, ni aldís ihesi

emastiren osaba, nin othoierazi
 etxaltik sal zitzan, nenzan librerazi
 bena ni emastiak, ordin harerazi

hogita bederatzik nütinin kunplitü
 aitak zeitan hurreki prozesa phusatü
 ene presus izanes, defautes jüjatü
 ene hirur etxaltik, ordian beretü
 eta ez gastelilat eni sosbat heltü

hogeta hamarrenin, hileri kaxotin
 jüje haier gorderik, sabrekaldik bürin
 jaunliera zeritan, jabeki bat egin
 eta ez ikhustera, ihur ützi ordin
 loxas eginzin kríma jüjek lezen jakin

Kunplitü nütianin, hogita hamekak
 emastik egin zeitan, jaunareki bastart
 ezarten beinüdián, feit harek kanpulat
 kondenerazi nündin, ordin jaunlierak
 loxas püniras nezan, egin zeitan plagas

kunplitü nütianin hogeita hamabi
 ajenerat nündien prauberik igorri
 khaliñabat lephoti jandarmak thirari
 ene zaiñek es nahi khorpítza egari
 heltünündien airin, ezines ebili



hogeta hamahirur dena nian triste
ajenen beharnila hil beinian uste
sekursik ezin ükhen, hanko jana kuntre
finirasten nündian, emastiak hanxe
espaleit jinkuk heltü, xaho atharratze

hogita hamalaura, nian alagera
uste beinin ajenen, libratzen ninzala
bena gaiski saldürrik, emastik harzara
kondüsütü nündien, brigadas brigada
hanko borthan hartürrik, donaphalegira

hogita hamabostin, ni donaphalegin
han hil beharniala, düdarik espeinin
hanko jaun jüjetara, zen emastia jin
han perieras nenzen her othoiak egin
eta ni haren despit hek libratü ordin

hogita hamesein, ninzan etxen sarthü
fonsa engajatürrik, emastiak bathü
hirur milla liberas hunak debenitü
eta bost edo seies, zorrak emendatü
halere arragretik, es eni markatü

hogita hamazaspin ni exaien artin
haien nabastarrien ezin süportatin

kolpatü ükhen zien gaibates ülhünpin
ene adiskidebat exaba zen ustin
eta eni behartü, berris ihes egin

hogita hamazortzin, gorde nin lekia
loxas nausilekhidan hartan jüstizia
eni deus eman gabe, zianak tritia
egin zeitan exaier harerazitia
eta gero beraren, hen nausi sartzia

hogeita hemeretzin nik paubeko khortin
zaspi jakile falsü banütian khantin
hanko jaun jüjer erran, nik zer sofritünin
eta ene plentetzas, hek kasetak egin
eta nihau ezari dolüs libertatin

Berrogeden urthian ninzan etxen sarthü
jakile falsü jinak, han etxezain bathü
ene bortan sartzeti, haiek defendatü
bost lekhütako primü, izan zena sorthü
etxesbat egin gabe, ostatin gabetü

Berregei eta batin prozesbat hasinin
fonsa edo saria bata nahi beinin
arbitrek ni trunpatü presentik espeinin
haiek ni sinerazi zertan espeinekin
eta hartze nianas, kitanxa eragin



Berrogita bidena nianin kunplütü
 ene xangriak zeistan sobera gañitü
 mündüs mündü beininzan pelegri phartitü
 ene phenak bihotzin, bost reino traukatü
 errumako hirian, khomentian sarthü

Berrogita hirurin nündüzün khomentin
 haurren nin arrainkürak, erratzen beinündin
 haren ezin sofritüs, ni franziarat jin
 pasaporta desegin ankonako hirin
 eta presu ezari toskanako lürrin

Berrogei eta laurin izan ninzan jalki
 berrogeta hamabost gerren gastelütü
 nimaseko hirian egonik hil exi
 araues espeininzan sofritürük aski
 jin ninzan bataliara, ene exaieki

Berroge eta bostin seis prozes hasinin
 aita jinkuk deithürük, haren huna beinin
 eta ene hurreki sarthü ene hunin
 hen amareki ere jarri ünionin
 estelarik etxaten senharraren ohin.

Berrogei eta sein nian thürmentia
 ene lekhü galdiren, ezin xüxentia

eni benjatzes junik, ikusten hatia
 igortiak egiten eneti jatia
 haren süportatzeko, behar pazenzia

kunplütü nütianin, berregeta zaspi
 haurren zerbait geinhatzen izan ninzan hasi
 geinhazale lagüna zortiak attaki
 musde maitiak hura, musde etxatzeki
 defis jaun presidenta, gati librerazi

Berrogei eta zortzik orai düütüt bethe
 hontan seme bat garda sarthü nahi nuke
 eta hartako behar nik autoritate
 erregeren beitzira zü proküradore
 jauna zük egidazü hartako fabore

Monsieur,

Je vous demande excuse le fautes que le hate ma fit faire, quant aux griefs que je les explique pour les sujet de ces couplets je ne rien ajouté plutot diminué et aux années accordées avec les souffences il a put être quelque changement c'est a dire 2 question ils pourront être arribés dans un an quoique je les ai mis an par an et je mis le 31e avant le 30. Si vous soucie de les faire copier vous faires observer.

Monsieur Monsieur j'avoé je né rien mis qu'il soit digne de votre attention ni souffert rien moins que je écrit.

Je vous salue avec le plus profond respec par votre estimabre perssonne.

Topet dit Etchahon



AHAIDE DELEZIUS HUNTAN

Ahaide delezius huntan bi berset gei tit khantatü,
Ene bizitze mulde gaitza münd'orori deklarätü:
Ihun sos bat ebatsi gabe ez eskandalik txerkhatü,
Hamar urtheren galeretan nahi ükhen naie sarthü.

Ebili nüzü kharriketan, ene bidaje handitan,
Amorioz nindaguelarik xarmagarriren huñetan,
Ixterbegiak zaudelarik eia nun sarthüren nintzan,
Bena haien orenen gatik, ni maitiaren lekhian.

Zelietako Jinko Jauna, zützaz nüzü estonatzen
Zerentako hain desbardin gütüzün heben egiten;
Batak indarrrik gabe, bestiak zentzü gabe, bethi praube agitzen
Mündü huntaik bestila baiko, han denak gira bardintzen.

Mündü huntan hanitx persuna bada malerus izanik,
Bena ez beren etxequak nik bezañ krüdel ükhenik,
Ene amak bost lekhütako primü nündüzün sorthürrik,
Igorten naie mündüz mündü deüs nütinak idokirik.

Jinkuak maradika beza Gaztelondo Topetia
Eta neskatila praubetan amorio ezartia!
Batetan ezarri nilakoz, izan niz desprimütia,
Egüzaitak egin zereitan ordeñiaren haustia.

Hazi behar nian phüntian traballatzen nintzan hasi,
Desprimü-eraz nentzan lotsaz, nahiz aita trenderazi;
Osagarria hari khausitü nahiz benin galerazi:
Orai agitzen zitadazüt segür hiltzia presuntegin.

Ene aitak destinatia ükhen nian espusatü,
Erranik nahi zeitadala primajia errendatü.
Ene maite (fidel) ezagütia nik horre gati kitatü,
Eta beste maiterik zian bat ene phena gei hartü.

Bi hilabetez egon niz presu ene emaztia gati,
Ta hura xalanteki etxen ni han nintzanez jelosi;
Ber denboran ene anaiek (defautez) prozesa jüja-erazi,
En'hunaren juitü nahiz eta ni kundenerazi.

En'anaie erüsatia, menjatü hitzaiket aski,
Ene lehen eritajia orotan fraudaz ebatsi;
Orai khorpitzeko xangriek behar nie eihar-erazi:
Behar diat presuntegian hil edo amuinan bizi.

Ene seme nik primütia, egin deitak traditzia,
En'anaiak zeitadania kita-erazi Frantzia.
Adixkidez libreraz nentzan egin neian bilaiztia,
Eta hik eni hen ixilik egin kundeneraztia.



Musde Deffis jaun presidenta, eta Musd'Ündürein jauna,
 Galdürrik nintzan enialakoz semiak zian deseña;
 Zien leterak eraman baleizt Paueko jaun jüjen gana,
 Libratzen zian bere aita, bizia zor zereiona.

 Paueko jaun jüjek balie ene jüjatzen jakintü,
 Nun etzien ene etxaltia frauderiaz akositü
 Enündia kundeneraziren, bena semik ni traditü
 Eta ni kundenerazi nai nahiz hunaren juitü.

 Oi jüstizia injüstua, igorri naizü herriti,
 Eni ebatsi etxaltian den anaiaren ihesi!
 Ene semik ez nahi hazi, nik hari eman huneti:
 Behar diat presuntegian hil edo amuinan bizi.

 Bi urthe igaran ditiat Españan pelegri gisa,
 Hire ganik deüseren ezin ükhenez biziaren bilha;
 Orai hiri sokhorri galthoz jin nük ezin ebilila,
 Hik igorri ene etxerik erranik han deüs enila.

 Bi hilabete igaran tiat sabaietan hotzez ikhara,
 Ezpenündia nahi ützi ene sükhaltin sartzera,
 Ez hik ez hire emaztiak ene ohian lotzera,
 Jüstuago zia lo zedin hire küñata izorra!

 Ene etxalte zabalían ezari ninak hireki,
 Gai oroz barnen sar enendin, borthak dereitak esteki,

Ezpeitzeion phenaik egiten hunak ützirik zieki,
 Ene amuinan igortiak, bi athorra xiloeki.

 Adio erraiten dereizüt, ene phena-gei hartia,
 Bena orai zü zütüdano, ene kontsolü güzia;
 Athorra bat eman deitazü destrenpien erekeitia
 Ikhara zinandialarik errenak jakin, trixtia.

 Zortzi urtheren behar deizüt erran dolorez adio;
 Haboro bizitzen ezpaniz, Josafatera artino.
 Inkas bizitzen bagirade biak mündian haboro
 Algarreki izanen gira Jinkuak pharti artino.

 Semiari nereionin egin ene photeren ützia,
 Beste haurrer niezün egin ene borthen zerratzia,
 Eta zü ezari neskato etxen, malerus trixtia,
 Aita amak so egizie zer den haurrer bilaiztia.

 Adio erraiten deiziet ene haur dotherik gabik,
 Ene süberte malerusak, trixtik, mündin ezarririk
 Ene gisa har-itazie, pazentiaz zien kürützik
 Eta salbamentia txerkha, hetzaz imita Jesús Krixt.

 Adio dereñat erraiten, ene alhaba barkhotxa;
 Etxeki-ezan familían orai artinoko kundüta,
 Küñat küñater eman beriak, haurrer Jinkuaren kreinta
 Senharraren hun izan eta zaharraguak errespetta.



Etxahun, nausi famatia, galdü dük libertatia;
 Orai hiri erriz ari dük oi hire ixterbegia;
 Eta orai hir'ezin bestia, harekila trixtezia,
 Behar amuinan hasi edo pelegri juan bestela.

Zelietako Jinko Jauna, zuri gomendatzen nüzü,
 Ezi ene best'erresursak or'akabi ziztadatzü;
 Libertate, hunak, uhurik galdürük agitzen nüzü,
 Eta khorpitzaren gal lotsaz, mündüz mündü banuazü.

Izan nüzü Jundane Jakan, Loretan eta Erruman;
 Jente hunetzaz beinündüzün zük hazi ene errundan.
 Orai ere phartitzen beniz zure othoitzez ber gisan
 Haietzaz bizi-eraz nezazü malerus nizan denboran.

Khantore hoiek huntü nütin Ünhürritzeko olhetan,
 Errumarat juiten nizala erraiten beitüt hoietan;
 Maleruski ni hil banendi bidaje lazgarri hortan,
 Ziberuan khanta-itzazie, ene orhitzapenetan.

EIHARTXE ETA MIÑAU

Sed libera nos a malo sit nomen Domini;
 Vamos a cantar un canto para divertir;
 Jan dögünaz geroztü xahalki huneti
 Eta edan ardua Juranzunekoti,
 Chantons mes chers amis,
 Je suis content pardi,
 Trinquam d'aquest bun bi
 Eta dezagün kanta khantore berri.

Jente hunak erranen deiziet mementin
 Nik zer ikhusi düdan Pauerako bidin:
 Eihartxe et Miñau aski aide gaitzin.
 Nihaurek ikhusi tit Belereko hegin,
 Hamarna lüs eskin,
 Jokhatzen beitziaadin
 Zuñ lehen jun bidin,
 Eihartx'huñez eta Miñau zamari handin.

Oren baten bürüko, Ganera ziradin,
 Miñauren zamaria eñhez ezin bestin;
 Eihartx'aldiz juaiten galopaz aintzinin,
 Bagoz eskalanpuak handirik beitzütin.
 Arueit handi zin,
 Ganeko pabatin,
 Sü jauzerazten zin:
 Miñau gaizuak hamar lüs aisa galdü zin.



Gero zütien lanak, Pauera zirenin,
 Hanko Proküradore ta jüjen aintzinin,
 Eihartxe aisa mintzo dihariä beitzin
 Miñau ere bai triste, frank'arrazuekin.

Ais'obtenitü zin,

Tribünal zibilin,

Eihartxek bai ordin:

Miñau gaizuak prozesa ere galdü zin.

Pauko kontrolür jaunak zer lana egin zin,
 Eihartxeri bilhutaik lothü zeionin!
 Berak ere pelüka, bertan lürrian zin,
 Bi beharronduetan Eihartxe ilhagin!

Bertan phentsatü zin

Zer egin behar zin

Eihartxek bai ordin:

Papera kontrola-erazi mementin

Etzatekin dolügarri kontrolür jauna,
 Behar ükhena gati kontrolatü papera:
 Behar ükhen diozü orano audela,
 Berak abantzatü ehün libera,

Eihartxek ezpeitzin

Beharrüne handin

Paperaren ordin:

Amandalako edo persegitzeko phüntin.

Bena Eihartxe, nula gizun galant beita,
 Satisfatü dizü kontrolür jauna;
 Kado bat egin diozü zerbütü sarila,
 Diharü ederretan ehün libera,

Abertitü bera,

Aurhide bezala,

Eztakhion fida:

Bilho thirakan aisa bürüzagi dela!

Pauko kontrolür jaunak etzian phentsatzen
 Eihartxeren phasta zertaz eginik zen.
 Khamü hariz ala hede larrüz den:
 Buhame kasta dela dü opiniatzen;

Deio hitz emaiten

Zinez segürtatzen

Etzola lothüren;

Sobera lotsa dela basa gizunen.

Eihartxe phüntü hetan, inkiet ere zen
 Hiru lan gaixtorik hasirik beitzen:
 Emazte gaixto baten galant-eraziten,
 Prima khexakor baten ema-eraziten,

Auher handi baten

Agüdo erazten,

Eniz estonatzen:

Hainbeste lan sobera da gizun baten.



Eihartxe behahigü et'erragük bertan

Eia zertan hizan hiru lan hoietan.

Ari hiz izkibatzen huraren gañian,

Azkarki traballatzen bena auherretan.

Ütz-ezak oithian

Mihisia plegian

Gaizak dien lekhian,

Eta hihaur bizi nunbait bazter batetan.

Lai

Nik baditüt bost küñat braborik halere,

Sekurs handirik beraieki beitre.

Hek ere goraintziak igorten deiztade,

Phiper eta minagre oliorik gabe:

Nik haier deüsere

Ezpeitüt deüsere

Nihauenik ere:

Hatik desir nizezü ereiñak bil balitzade!

Elle

Pauko kuntrolürrak ezтик erran gezürrik

Basa gizuna zuñ den, harek badakik.

Iratin ta Arbotin hik badük lagünik,

Nuizpaiko paganuer plazak idokirik:

Ez, hire ereñik

Eztiagü beharrik

Khen-hakhit hebetik,

Eta gero hantik güti igor berririk.

Lai

Enaiñ ez igorriren, hik ni, Iratirat,

Ez Holtzarterat, gütiago Arbotirat;

Ni sarri jinen beniz Eihartxialat,

Eztütün, ez hik, han manhatüren bestak.

Hitz-emaiteñ deñat:

Nik han matütiñak

Khantatüren tiñat.

Ezpeitü balio emaztek egin senbladak.

Elle

Etzena izigarri balia, Jinkua,

Emazte erho horiek egin senblada?

Zaragolla hobenak haienak zirela?

Gizuntako aisa nausi zirela?

Kapiten arrasta

Gizonen bitalla

Aski franko zela!

Bena aurthenko huntan trunpatüren dira.

Lai

Bas'arhantzia lilitzen arhantz'hunareki

Haren frütia huntzen da gaitz bethi.

Üzten hait mintza hadin zeküriareki

Pheti behera beita ingoiti Üharreki.



Esparantxareki,
Denborareki
Jinen zaital'eni
Emazte galant bat eginik phasta gaxtotik.

Elle

Egün hun Jan Pierra zü ene senharra!
Jinkuak egün hunik hanitx deizüla!
Gaxki bizi beikira dakizün bezala,
Orai gitün iseia, gü kunbertitzera
Adora Jinkua,
Irabaz zelia,
Lüze da denbora
Beste mündian eternitatekua.

Lmi

Hunki jin ziradila, prima anderia,
Zük ikhasi ahal düzü zeküria:
Kit'ezazü Phetiri jin bada beharra,
Gure gobernadore hura aski beita;
Egin da bakia
Legiaren gisa,
Gizuna nausia!
Emaztek aski die haier behatzia.

Elle

Nik badit abis hunik emazte lagünen!
Susmis izan ditian gizun brabuen,
Lotsa eta beldürti bai aldiz kokien,
Haien gobernatzia eztela emazten,
Flakia azkarren,
Praubia aberatsen,
Emaztia gizunen,
Bortxaz ere direla susmis izanen.

Lmi

Hik badün abis hunik emazte lagünen,
Nik ere badiñat gizun ezkuntzekuen:
Eztitin sober'ebil primer khort'egiten,
Gibeletik manduer bastaren ezarten;
Mando gaxtuaren
Üzter ostikuaren
Süstut ferradünen,
Bena lotsago izan prima handiaren.

Ni izan niz hebentxe taka agertzale.
Areta nik banüke bai nihaure ere,
Ziek behazaliak imit'ez nezazie:
Josafaten badate heiagor'egile
Gü jüj'izan gabe,
Jesüs han dateke:
Gütiala bere!
Ordin batüzkegü aski nurk guriak ere.



OFIZIALENAK

Oi laborari gaxua,
 Hihaurek jaten arthua
 Ogi eta ardu geñhatzen auherren asetzekua,
 Halere hañ haie maite nula artzañak otsua.

Artzaña bada beztitzen,
 Josliak tü gomendatzen
 Zaragollen alderki bata oihal hobez ezar dezen.
 Halere higatüren dizü aitzinia beno lehen.

Dendaria berant jiten
 Arratsen goizik ützültzen;
 Eta mündiaren jorratzen arte hartan abüsatzen
 Ezpeitü jaten diana hüllantzeko irabazten.
 (Asteko denbora iragaiten mündiaren jüdikatzén).
 (Artuan jaten dian gatza harek ez tü merexitzen).

Orai ürüliak oro
 Idorrian nahiago.
 Hanitx lan agertü beharrez, hari'oro txori lepho;
 Hallikatzen balinbadüzü, zehian laur oropilo

Ehülia hari galtho,
 Ükhenik ere han franko;
 Undar harien ebatsi nahiz oihal'üzten zerratzeko,
 Fornizaliri erraiteko hariak zütüla gaxto.

Harri giliren adreta!
 Harek badaki zer phentsa:
 Mürria gaxki egin eta erdiruak lohiz thapa!
 Etxia lürtatü denian, harrien gaxtuak falta.

Menüser, maiastüria
 Oi lan güti egilia!
 Dena gaxki egin eta zurak dü estaküria!
 Phasta zela adarrondotsü eta beta bühürria.

Eskalanpu egiliak
 Ebasten tü materiak.
 Zazpira sos balio dina saltzen beitü hamabia:
 Ostatin jan hen saria eta etxen gosez familia.

Biñer batek bestiari
 Estakürü eman nahi.
 Zuñi bere kopadüra hobe beitzaio üdüri:
 Aihen gabe nahi datinak hura beza üsü berri.

Oi taharnari fidela!
 Jüje ezpaliz igela!
 Arrañak jakile har eta hek litzakie kundena,
 Haien etxe lejitümua guri saltzen deikiela.

Errijent bat bada hiltzen,
 Hark eztü prozesik üzten;
 Huntarzünak beitütü harek heñ hun batetan ezarten:
 Züntzürin kuntrolatü eta phantzöllin ipotekatzen.



Jaun aphezek etsortatzen
 Karitate egin dezen.
 Berek aldiz phakatü gabe hitz bat ezte erraiten;
 Herriko praubik gosez eta haien ürhik erdollatzen.

Ilhaginak aberasten:
 Arimak hañ untsa galtzen.
 Phezian eta khuntietan zer ezte hek ebasten?
 Horiekila behar düke Jinkuak aizina ükhen.

Khinkillarien suñ hütsak
 Borthaz bortha dabiltzanak!
 Haien prenda ordinaria ixkilinb'eta ligeta!
 Astin emazter ebatsiak igantian gero jokha!

Oihan zañak eta guardak
 Kuntzentziatzko gizonak!
 Gerak bazaitze farzirazten, ihesiren tie postak;
 Lagüner hareraziren tie bardin gaizo sinheskorrak.

Sarjanten golde nabarrak
 Dirade gizun okerrak.
 Haien egitekuetarik egiten tie Indiak:
 Aisa pergüt izanen dira haier behatzen direnak.

Sarjant eta notariak
 Oi! arnes neseariak!
 Haien elhe ülhün gezürrek nahasten gaiza txipiak:
 Ezta lagün hobiagorik bertan hüsteko etxiak.

Oraiko arotz gaztik
Gizun galant dira güzik:
Zabarren eskoletarik ez balira ikhasirik,
Atxeirü güti ezar eta egin espantü handirik.

(Oraiko) Soñülaría
Ardüra dük egarria;
Soñü egiteko behar dük nuizetaik manbazalia,
Godaletaren hartzeko aldiz betbi prestik (dük) eskia.

Dantzariaren arbina!
Eztük ez bürian mina!
Zuñen adreki badabilan hara eta huna
Eta balere irus, ager beütük lan egina.



GAZTALONDO HANDIAN

Gaztalondo handian agitü niz arrotz,
 Apaïdü bat egin düt ezpeitzen gorgotz.
 Untsa barazkaltüren nintzala nintzan botz,
 Khümitatzalia aberats nilakotz
 Zopak nütin arthoz,
 Salda ahül gatzotx
 Godalia hur hotz,

Eta hetaik landa bi pattako erhotz

Zopa jan nianian ni alde orori so
 Zer othe ükhenen nin pattako hekiko.
 Etxeko anderiak ekharri zin artho,
 Ezpeitzian ogirik apaïdü hartako.
 Zieta nin sakho,
 Gathülia manddo,
 Kullera zurezko,
 Tahalla beltz ta xathar bat lunjeratako.

Etxeko anderia aberats zira zü,
 Jenerus ere bai arrotza handi badüzü;
 Bena nahi bazira izan uhuratü,
 Eztüzü ez behar txipiez trüfatü,
 Zük botella hartü,
 Bester butillatü,
 Haier ez eskentü,
 Holako kunpañetan eniz oano heltü.

Bazkari' ürhentzian bi paper nik hartü,
 Bazkaria beitzitaden hitzeman phakü.
 Zük etxekanderia, ordin ardu hartü,
 Orori butillatü, eni ez eskentü.
 Nik hura galthatü,
 Nahiz ardu hartü,
 Zük ez konprenitü;
 Hartakoz laur berset hoik ükhen dütüzü.



HAUZEN BADA LABORARI

Hauzen bada laborari
 Umen dozena i'et'erdil!
 Arthoz, bihiz eta kabalez, Ziberuan bürüzagi!
 Ben'etzaie erran beharrik, berek beitakie hori!

Hauzeko jenten üsantxa
 Espantxa dienin arrotza:
 Ogi ta gazna mahañilat, harek jo dineko bortha;
 Han badakie bethi danik, nula karesa arrotza!

Hauzen bada jente larri;
 Untsa haztik kausa hori!
 Hartakoz etzeren Jinkuak eman nah'ükhen ardurik,
 Lotsaz min eginen zirela bata bestiak algarri!

IDORROKI OLHA

Idorroki olha Ziberuan da;
 Artzañ baliusik hara biltzen da.
 Han gerthatü izan da Etxahun gaizua,
 Lagüner diezü huntü bi kobla,
 Üdütütürük ezi merexi ziela.

Kharrikiri-borda edo «Sans quartier»,
 Ai! zer lagüna hura atzin lo egile!
 Bezpera gaiti dua olh'aizulat ere,
 Bihamenian jiten nahasterik gabe,
 Ardien berheztera beitu herabe.

Kharrikiri-bordak astia igaran,
 Bere pastetxa dizü bestek eginik jan;
 Harek ekharri hurik ihurk eztü edan,
 Ez eta ez egürrik ezarri süian,
 Hargatik izan düzü bi egünez artzañ.

Kharrikiri-bordak zer zian egiten,
 Ardiak zeitzenian bestek berhezten?
 Juan eta salduan zietzün sartzen,
 Berak aldiz olhalat laster egiten,
 Haren lagün zena ordian laket zen.



Artzañ egon zenian herabereki,
 Arhanka juan züzün zakiareki;
 Arhan sobera janik tripa sorterazi,
 Gero etzatekian ardier jarraiki,
 Gai hartan hirur hogeï zütian ments ützi.

Etxahunek diro erran Garaiiri:
 «Ardien berheztera habil ordin hi!»
 Harek ez ezagützen berarenak kasi!
 Berak behar ükhen tü berhez-erazi
 Olha aizoko bati kobla hunt sari.

Etxahun gaizua hik aztüra bethi:
 Bortian heltzekua lagün huneki!
 Bazia hamar urthe edo hamabi!
 Ehintzala bortian izan orai baizi,
 Bena büilta baten haie aserazi.

Adio Lixagorri eta Idorrokil!
 Enaizi'ekhusiko haboro jagoiti.
 Diborza egin dizüt emaztiareki,
 Orai egin nahi diat borthia hireki
 Otsuak janen deitzak ardik ene gati.

BELHAUDIKO BORTIAN

Belhaudiko bortian Organbidexk'olha,
 Bere deskantsiala han ardiak alha,
 Goizan tie igorten olha-pen behera,
 Artzañ-hor gaixua gida eman eta,
 Arratsen ützüil ditin gomendatüik untsa.

Artzañ hurak zütien ardiek trunpatü:
 Goiz batez juan eta arratsen ez sarthü
 Merkhatzale ziradin hurak abiatü
 Ilhiak zütiela behar engajatü
 Eta jarraikile bat hunik akordatü.

Otsogorri behera ardiek, lasterka,
 Zalhe igaran zien Gaztanbid'ühaitza;
 Besarkagiala baikoz baraxtü ürhatsa,
 Bide handin bathürük Arhaneko tropa,
 Han ziren artzañeki jarri mintzatzera

Artzañez mehatxüeki galthatü ardier
 Nurat juaiten ziren ihesi nausier;
 Haiek arrapostia ezta hanbat eijer,
 «Berrien iruitera baguatza Pettarrer
 Ahatzerik girela gure artzañ jauner».



Artzañ horiek zien ardier galthatü
 Eia eztienez ihur bidian barathü;
 «Tiro, Elgoihen eta Odoronda tügü
 Gure igaraitian erriz borogatü
 Ustез otsuek behar zien gaur gützaz aihaltü.

Artzañek zeren erran errespetüreki
 Eia eztienez bathü Filipe Arainti;
 «Bai bathü ükhen dügü Pheti Üharteki,
 Biek igaraitera beikütie ützi,
 Ari beitzen ebia, nahi gabez busti!»

Artzañ hoiek diezü erran ardieri:
 «Otsuek jan etzitzen, emazie gureki».
 Ardien arrapostia «Mila plazerreki,
 Ilhiak deitziegü emanen hümeki,
 Nahi badeiküzie sueñ hun bat etxeki».

Artzañ hoiek ardier: «Hots Arhanera!
 Han izanen zidie guriak bezala».
 Ardiek arrapostia: «Zietzaz kuntent gira,
 Artzañ auherrekila üsatürrik gira,
 Entzünik ziek ere hala ziradiela».

Organbidexkes horik jeiki zieneko,
 Ardi horik Arhanen hanko karriker so;
 Bertan ziren orori hasi berri galtho,
 Arhanera heltü biharameneko,
 Gaian ez eginik goizan bezañbat lo!»

Khantoren egiliak eztizü beldürrik
 Ez bortian ez etxen gal dezan ardirik;
 Batño bat beitzian arras ñaphürtürrik
 Beste artzañ bateki adixkidetürrik,
 Kuntentik diagozü hura kitatürrik.



LHEILLE

Igaran Sen Bladiz, Ospitalesekin,
Hirur sos baizik enian ordian eneki;
Berriz agitzen baniz holako lagünekin,
Büría bethe gabe bertan bexuak goiti.

Eihartxe gañiala heltü nintzanin,
Iseia zunbait arte hartan egin nin;
Alde bata enia zela, bestia mementin,
Enintzala heltüren arras etsitü nin.

Etxerat nintzanian Añari oih'egin
Borta zabal lizadan barnilat sar nadin;
Eritarzün handi bat, hura dit khorpitzin,
Jaun bikariak behar dü hunat mementin jin

Añak Añetari lehiatüki:
«Lheille heben diñagü hiltzen sübitoki,
Ekharan khürützia ohe adarretik
Zeña dezagün eta ezar Jinkuarekin».

Añetak Añari espiritüreki:
«Lheille eztün ez hilen oano horregatik;
Ama birjina din ikhusi broketaren xilotik,
Arren zeña dezagün Jinkuaren odoletik».

GALHARRAGAKO KHANTORIAK

Galharragan Pulluna, elhekarien ama,
Harek dian lana da etxez etxe ebiltia,
Jaun erretorari gero berrien eramaitia,
Nula gahüntatzen deron Phetiri Santzek thipiña.

Üthürralt badabilazü jentez orori ihesi,
Taharnan eta lanin amoriekin,
Bena haren emaztiak hala dizü merexi
Zeren adarrak egiten beteitzo, Phetiri Santzeki.

Galharragan da Erle, asto hazlen gehien,
Bosna libera hazten titzü belharrik (batere) eman gabe;
Nik eman nikiozü hamar haz balitza kapable,
Hanko janarekin eta bestetan handizale.

Galharragan da Antxen, zorrek hunen gehien,
Bena hark eztü hetarik batere phakatzen;
Bena halere hura die aisa errespetatzen
Zeren dien aisa nausi üzker handi egiten.

Adios Galharraga, Galharraga ahüla!
Hitan lakhetzen dena dük haizia eta elhürra;
Etziok ez berotüren Etxehuni südürra
Galharragako auherrek ekharririk egürra.



GAZTALONDOKO NESKATILAK

Bi berseten huntzera nüzü abiatzen,
Gaztalondo handiko neskatila gazten.
Hurak nahi dütienez dirade trüfatzen
Intertan gaxo hurak etxetan zahartzen.

Hamar etxekalhaba badirade aizo:
Nurk zer estakürü din dirade bethi so,
Algargana bil eta erri egin gero:
Ai zer denbora hori, eztait nuiz artino.

Gaztalondo handiko hiru etxekalhaba
Abiatü dirade Maidalenara.
Bideti ütülirik jun dira Landara,
Entzünik jun zeitzela xalantak hara.

Senthorale horiek egüna segreki,
Igaran ükhen die Muntorieseki;
Ützültzin jiten dira Soskori aldeti,
Maidalenen zirela koloratzia gati.

Persuna gaixo hoiek etxera zirenin
Uha eta eñhez ziren ezin bestin;
Flakatürük zirela plañitzen ziradin,
Ezi bidaje handin izan beitziradin.

Etxekuak arratsen trixtezera dira,
Alhaba arraruak eri dütiela,
Eztielakoz jaten üsatü bezala,
Landan jan beitzükien kustilla sobera.

Persuna gazte hoiek ohilat jun ondun,
Amek kasola bedera ardu zeien irun;
Haiek aldiz ez hartü, alegia ez hun!
Landakotik beitziren bia phitxer kholkun.

Muntoiko muthikuez nüzü estunatzen:
Nulaz dütien haitatzen emaztik Barkoxen;
Areta badakie eztiela hun haien,
Ezpadie haboro miñatze lanthatzen.

Muntoiko muthikuak, abisa zitaie:
Emazte geiak Landan haita itzazie;
Hurak kuntent dirade ardu edan gabe,
Mestüráz eta broiaz asia badie.

Barkoxeko emazten üsatü legia;
Zopak jan dütienin arduz godalia;
Ez Muntorin bezala hur erdi lohia
Bargera xilutara üharriz bildia.

Barkoxen nahi denak gaiáz paseiatü,
Zaragollak behar tü untsa butuatü:



Ezi ber süjeta izan zaikü heltü,
Emaztek diela gizun bat zehatü.

Gaztalondo handiko lür plano gizena!
Senthore beita han hazirik dena.
Haïetarik hartzera ihur ezin deña,
Beldürrez haien haztik eman dizen phena.

Gaztalondo handiko segella senthua,
Eri lüzaz egonik iruski sendua!
Balinba zure gaitza etzüzün, gaixua,
Arauz gaierditako zerena gaxtua.

Gaiazko zerenak nik entzütia badit,
Eritzen dütiála neskatiła gaztik;
Ta gero sendotzeko behar hilabetik,
Hiru, lau, bost, sei, zazpi, zortzi, bederatzik.

Neskatiła gaztiak, abisa zitaie:
Gaierdi zerenatik begira zitaie;
Zunbait irus segreki libratürrik ere,
Püblikatzen direnak haboro dirade.

Khantoren egilia düzü ezkontzeko,
Emaztia nahi lüke lau kalitateko;
Gormanda, libertina, auher, mihi gaxto,
Uste düti Gaztalondon bat ükhen halako

SARRANTZEKO SENTHORALAK

Hasten nüzü khuntatzen,
Egiaz bai mintzatzen,
Nahi dinak sinhetsiren:
Bi senthoralek nündien estoneraziren,
Debozione txipi bat en'ustez beitzien,
Ezpenintzan trunpatzen.
Khanderallü egünin,
Ekhiaren jelkh'phüntin,
Jarri ginandin bidin:
Ondoz ondo igaran Eskiulako hegin,
Lehenek egürüki Ihasik'oïhanin,
Hitzak hala beiküntin.
Aitzina gira juiten,
Dona Marin baratzen,
Orazione egiten;
Arrañ bat, han, ederra ezin heltin jaten,
Indarrak hartü ondun girela juanen,
Sarrantzen mez'entzünen.
Egüerditan Sarrantzen,
Hara eñherik heltzen,
Khumentiala sartzen;
Hanti bertan elkhitzen, meza erranik zen,
Bazkal ondun güntila othoitzik erranen,
Debozionik eginen.



Arrañ beharri zabala,
 Hunki jin hizala,
 Gure mahañiala;
 Hir'ikhustiak emaiten deitadan plazerra,
 Esparantxarekila janen haidala
 Ene lagünekila.

Khantore horren egilik
 Etzian egin besterik;
 Ez othe egin erririk;
 Etzirela harek eginik
 Ez eta phentsatürük
 Hartakoz eztit ogenik.

ORAIKO NESKATILAK

Gazte nintzanian, hogoi urthetan,
 Ardüra nindabilan neskatilakan;
 Eta orai aldiz, ostatietan,
 Diharü güti moltsan behar ordietan,
 Nehork enaie ikhusi nahi kunpañetan.

Ziberuan bada mithil eijerrik,
 Ene semia düzü bat heietarik;
 Neskatilakan ere ez dü parerik
 Ez eta neskatilek eztoie eztarik,
 Ez dait zer nahi dien orok hartarik.

Oraiko neskatilek ordenariozki,
 Mithilak nahi tie ahalaz jaun handi,
 Jenerus eta propi, plazent, elhestari,
 Ostatietan kantari, plazetan dantzari,
 Gaiaz eta egünaz, bethi paseiari!

Ezküntü direnian, gero beste khüntü,
 Ordian behar die hanitx gañatü
 Hanitx gañatü eta güti despendiatü
 Taharnak ützi eta dantza kitatü,
 Gaiaz eta egünaz bekhan paseiatü.



BI AMA ALHABA

Barkoxen badira

Bi ama alhaba;

Algarri segretien khuntatzen ardüra.

Hek uste gabe heltü, haier beha zena,

Etxahun xaharra,

Jinkuaren haurra.

Alhaba amari

Zen erraiten ari:

«Mündi'ari zitazüt bethi trüfaz eni,

Erraiten beteitade: toû pay qu'ey toû payrî»

Zer othe da hori? (bis)

Auxilik alhaba!

Hori dün mardalla!

Hitzaz oküpü ondun hil ziña senharra;

Hamar hilabeteren bürin, hi jin haurra

Harek egin obra,

Hirur hortzekila!

Hamar hilabete nin,

Sorthü nüdüzünin!

Enila hura aita jarten niz beldürrin,

Aiei hau doloria eta ezin jakin

Züganik aita nur nin! (bis)

Hire egüzaita,

Zer gizun xarmanta!

Hareki бүрүз бүрү jan diñagü zopa;

Ordin danik badiñat bai nik bethi lotsa

Hunki zeitan kota (bis)



BI AHIZPAK

Kattalina entzün diñat egia segurki,
Maitia deitañala hik nahi ideki;
Segretik behar dütün bai ützi hareki;
Nahi ezpalinbatün olhuak eraiki.

Maidar, enün ebilten ez ihuren ondun,
Ez eta huna jiler nahi ihesi jun;
Ust'ükhen balinbadün hirik diel'en'ondun,
Eztitzañala ützi ebiltera kanpun!

Ai ahizpa falsa! ai hi lotsagarri!
Ene zopa hunen jaten bethi izan hiz ari!
Sorthü hintzan axuri izateko ardi,
Bena beldür nün egin hizala ahari!

AHARGO ETA KANBILLU

Ahargo eta Kanbillu,
Ardüra da hetan lanhu;
Aspaldian ebili hiza dendariaren ondun?
Gantza loditzen hasi ziok, gaxua, sabel ondun.

Barkoxe Bürgübüria,
Aizuan Larragorria,
Amoros batek salhatü dizü kurrunkaz bere büria:
Zeren etzen leihoti jauzi gaizo asto bürü handia!

Amorosak behar lüke
Orduz jakin ez egin lo;
Bestela harek ükhenen dizü bere kuntia oso:
Hemeretzü kunka olho, etxerat eramaiteko.

Ebili niz Oloruen,
Olho erosten manduen;
Hüllantxiago merkexiago: olhua franko Barkoxen,
Olhua franko Barkoxen, hi bezalako astuen.



MARIA SOLT ETA KASTERO

Maria Solt eta Kastero,
Bi amoros zahar bero;
Hirur hogei hamarna urthetan hartü die amorio!
Kastero jelostü denian, Maria Solt ezari kanpo.

Maria Solt dua nigarrez,
Izorra dela beldürrez,
Barnets-Bordako anderiak kontsolatü dü erranez:
Emazte zaharrik oküpü agitzen eztela araez.

Maria Soltek arrapostü:
«Santa Elisabet badüzü;
Saintü zahar bate-ganik oküpü agitü düzü;
Kastero ere bada saintü, hala nizan beldür nüzü».

Kastero eztüzü saintü,
Sobera bürhauti düzü;
Elizalat juan eta taharnan egoiten düttü;
Kastero dena gatik saintü, Maria Solt antzü zira zü.

GAZTALONDOKO PRIMA

(1838)

Gaztalondoko prima anderia,
Zure senharrak erran badü egia,
Bost urthez eztiala hunki emaztia,
Haren obratik bada zük düzün frütia,
Aberti ezazü kumai haitatia
Xatharraren plazan eros dezan abitia.

Eretako barberaren zaldia,
Gaztalondon gaiaz ebiltzalia,
Hanko zerrallü petan itzalin gordia,
Eia nurat jüten zeian bürüzagia,
Espadeikük erraiten hik zerbait egia,
Primak izanen dik aitarik gabe frütia.

Ebili niz Gaztalondon esklabo
Nahiagorik egon establian lo;
Nausia zeitan juiten prima ganat gero,
Eta ni kanpun ützen haien etsaier so,
Hurak denak oro adar ezarteko,
Zeren ni nintzan egiliren lekhaio.

Primak bazin jaun barberarentako
Aiharitan kapu eta ollasko;



Senhar miserabilia batian ohin lo,
 Eta bestian aldiz kristelaren galtho;
 Primak ordin hur xahakinak bero
 Eta haiez ajüta eman gero.

Zure senharra adjüent egon zenin,
 Balentia handirik zizün egin
 Ezarten zitizün unestak gaztelin,
 Ustez adar egiler fabore egin;
 Orai berak badütü borontin,
 Laket beitira xapel ziratiren pin.

Zamari gaixua jakile haigü hartzen:
 Haurrak aita nur din deikük erranen;
 Haren senharrak ditik aizuk aküsätzen,
 Bena gük eztiagü jaun hura sinhesten,
 Zeren ezte xapelik haiek jaunsten
 Eta prima ez arrunter behätzen.

Jinkua, ümilen faboria,
 Eta gük dügüna ürgüllia
 Laborari hun bat züzün primaren gradia,
 Bena goititü dizü sobera büria
 Nahiz entzün izena anderia,
 Galdü tizü hunak eta uhuria.

Primak dizü jaunetan sinhestia
 Eta haiez ezin egin phartitzia;
 Esküz eskü zelarik miserabilia,
 Harri batetan dizü egin lerratzia;
 Hartzen badü aitaren estatia,
 Notari dükezü jinen den frütia.

Berset hoiek dütinak konposatü
 Emazte bat nahi likezü hartü;
 Bena nahi likezü lükin ezpiritü,
 Ejer, ümil, gazte, eta bertütetsü
 Zure alhaba prima har liozü,
 Zützaz beno kumentenago lükezü.



KHANTOREN KHANTATZEKO

(1829)

Khantoren khantatzeko bada süjet berri,
Urdiñarben diela hüllan ükhen xagri;
Prima batek erosi funts bat berririk,
Kreanzier zaharrek abantzü ideki

Omize gañetik Urdiñarbera
Jaun gazte bat juan da espusatzera;
Xalanda zahar bat oposatzera,
Berak eraman dizü sakolan papera.

Espos horrek letera jaun erretorari:
Musde Behiagotik hau deizü igorri;
Haren arrapostia huntan da ageri,
Zure espusatzia etzeitala sori.

Espos horrek behala, süjet zian bezala,
Jaun erretorak ziala traditü gisala,
Jakin balü zer eman zeion sakolala,
Urthukiren ziala ühaitzian behera.

Espos hori behaia zaldiz hiriz hiri
Arranjü egitera andre zaharreki;
Diharü franko bazizün sakolan iruski,
Prima kuntentatü, bena dihariak ützi.

Prima horrek bazizün ordian bihotz min,
Haren marraketarik aisa dügü jakin;
Bi hogeiz ezteliar jarririk mahañin,
Eta harek arratsen senharrik ez ohin.

Basila Olivero, entzün dit batzare
Zük badüzüla bost-pa sei amore;
Ni edireiten nüzü batere bat gabe,
Bat eman izadazüt khantoren jornale.



MONTEBIDORAT JUAILIAK

autre nouvele chanson sur qui vont à Montevideo

Bi berseten huntzeko denbora düt hartzen
 Üskal herri güzian, nahis khantaditzen
 Montebidorat dira hanits abiatzen
 Bere khartiel huna, beitie kitatzen
 Eta gaistuaguan, fortuna txekatzen.

Hauda üskaldünaren sistima tristia
 Hürünian beitie bere sinhestia
 Ustez aisago egin han aberastia
 Deus estien lekian, zer aperentzia
 Horida arrantzüra larrerat juitia.

Süjet falsü elibat, jitenzaitze hanti
 Nahis jente erotzes, zerbait irabazi
 Gero haiek laidatzen, herria askarki
 Nahis ahal bezain bat eraman hebenti
 Bere fortunak behar hek egin sinpleki.

Aita etamer deitze haurrak galerasten
 Hastenkaitzen phüntian, zerbaiten egiten
 Ustes fortunén txerkha, dütie igorten
 Beren etxen beharrak, beiteitze emaiten
 Haurren gaiski ezartez, berak gaiski jarten.

Aitama hurak dira, ezarten nigarrez
 Haurrak haboro ikhus, estitzen beldürrez
 Trete hek hitz emaiten, khuntü hartzera hez
 Lehen etzeiskitzenak, salerazi ürhez
 Salerazitzen deitze, ordian gezürrez.

Haur gaxo hurakdira itxasuan sartzen
 Bere galerasliak, gidatako hartzen
 Muntebidora ordun, gero hek kitatzen
 Ordian hasten dira, bihots min egiten
 Zeren bere aitamak, kitatü zütien.

Gure aita estia, zure hurregati
 Odola ixurtera, zünikina ützi
 Gük dügün estatia, unsa bazeneki
 Fi gasto egiteko, bazünüke aski
 Gü traditü gütien, traidore hegati

Gure ama trendia, gük ützia etxen
 Gure abiatzian, bihots min egiten
 Egün gure plañiak, Bazüntü entzütien
 Nula zure ützia, dügün deithoratzen
 Nahigo güntükezü ikhusi ehorsten

Ezin bisis girade, jarririk esklabo
 Etxen güntialarik, gük beharrak oro



Anaiak girade ezari soldado

Arreben estatia, aldiz tristiago

Haren aiphatziazait, haien phartes laido.

(fait par Etchahon de Barcus le 2 août 1853)

BI BERSETEN EGITEZ

Bi berseten egitez nahi düt khuntatü

Aphezek nula tien koblarik trunpatü.

Khantore egitez gütie manhatü,

Nahiz Montebidorat juailik desgutatü,

Eta prima hitzaman hobenari phakü.

Bersulariak oro ginandian ari

Khantore konposatzen, nahiz prima hori.

Aphezak beiküntian gero hen jüjari

Gure berset hobenak hek beren ezari,

Eta hitzaman prima eraman guri.

Jaun aphez abill haiek zer dire phensatü?

Guri hatzaman koblak besteri zeditü:

Intertan hek hatzaman ordian bi phakü

Üskal heriko lehen poeta famatü

Seküla bersebat ezindina formatü.

Prima eraman düzün jaun aphez adreta

Eta zü famatürrik ezari poeta,

Ziberuko haurekin ez koblanan jokha

Ezi hurak estira zirekin gal lotxa,

Bazinandie ere biak Arxipretra.



Etxahon Ziberuan, Athillo Laphurdin,
 Bürüzagi direnak, khantore egitin,
 Espeikirade beldür aphezik jindadin
 Eraman deikienik hartan Üskal herin,
 Jokhatüren deregü hek plazer direnin.

Jaun aphez baten da hanitx itxusi
 Basa kobla huntzia ürgillia gati
 Kantika egitia lizate hen propi.
 Hartako bazünie espiritü aski
 Ordian zünükie bai prima merexi.

Prima dian apheza estüt izentatsen,
 Nun daguen erretor, ez nun sortürük den:
 Bena bai Elizalat duenian, erraiten,
 Has dadin hobeki han pheredikatsen,
 Espeitü poeta denez erakusten.

Zelhabe Barдозeko aphez arnegata,
 Aphezek gure koblak zuri eman, eta
 Jari izan zira koblarien aita
 Bena janen zünin gizenago sopa
 Hartü ükhen bazünin haiek dien plaza

Harriet zü zirade seminarin jabe,
 Bena etzirade hun koblarien jüje,
 Jüjatü beitütüzü zük bersetak hobe

Xainkhü zirenak, arrimürük gabe,
 Hen egilik beitsiren zure adiskide.

Berset hoiek egin tüt jaun aphezen kuntre,
 Nahi bada debotak dütüdan net maite:
 Bena arropa hura dinak behar lüke
 Erhokeriak ütsi, ükhen kalitate,
 Mündiri erakutsi ükeiten berthüte.



BARKOXEKO ELIZA

(1859)

Egün Barkoxen beita
 Libertitzeko besta,
 Bi berset khantatzen dütüt, soniareki aldika,
 Jaun erreterak emanik beität hoién süjeta.

Gure Jaun erretera
 Dügü Jaun khorpitz gora!
 Jinkuak ere egin zizün bihotzez ere hala,
 Bortxa ikhusirik beita harez jente aphala.

Barkoxeko eliza
 Da eder den bastiza!
 Erretorak fitsatürik dügü han jaunén plaza,
 Ezpeitiroie haren odrez praubek hantik entzün meza.

Praube bat izan düzü
 Jaun haién plazan sarthü;
 Bi jaun hara jin eta hura hen kunpañan baratü,
 Erretora süjet harez hüllan desesperatü.

Meza zinian hasi,
 Praubia zian ikhusi,
 Bi jaun handi hen artian, bere arropa txarreki,
 Hantik jalki-erazlia igorri sabre bateki.

Praubia zenian jalkhi
 Bere afruntiareki,
 Jun zeion zerbaiten galthoz, nahiz beztitü hobeki;
 Hura baratzian gorde ezpeitzin nahi ikhusi.

Praube hura da izan
 Zazpi erresumatan;
 Egün oroz meza entzün bi mila elizatan;
 Barkoxen bezala aphezek ez tratatürik izan.

Izan nüzü Loretan,
 Jakan eta Erruman,
 Aita Saintiren meza entzün kardinalen kunpañan:
 Arropak txar nütian eta ihurk etzeitan deüs erran.

Gure erreter berria,
 Ez juna üdüria;
 Harek üsü bisitatzen (zin) eri miserabilia,
 Eta zük elizan ere ezin ikhus praubia,

Barkoxera jin zinenin,
 Ükhen zünin «hunki jin»;
 Ustez süjet bat arrarorik sarthü zintzeikün herrin,
 Bena emanen deiküzü plazer(a) juiten zirenin.



Alemanak beitira

Españulak bezala,

Bere pekuen mendekus eta ürgüllüz gora,
Zük erakasten deiküzü kasta hartarik zirela.

Barkoxeko neskatalak

Eginez phastoral bat,

Ezin atsolbitüz dira higatürik oski zolak,
Eta haieri sogitera jin zirenak orobat.

Aktür hurak balira

Izan düke alhaba,

Haiek egin bekhatiak pharkhatü züntükin aisa,
Edo eman baleizie present zunbait pularda.

Barkoxeko aphezak

Oro dira manexak,

Ezkiniroia oithian ükhen Ziberutar artzañ bat,
Prauben eta aberatsen afable lizatin bat.

Barkoxen besta berri

Zen lehen besta handi,

Bena ideki derezü zük muda eder hori,
Desplazer egitia gatik hanko popüliari.

Uhure hura zergatik

Düzü Jinkuri ideki?

Ala mündin ebili zenin ebili beitzen praubeki,
Eta ez zük uhuratü handi ageri baizik.

Jinkua zelin bada

Zü elizan bezala,

Lekhü haitatüz ezarteko khargü dienen gora,
Gü taula petan girate, jente gradoz aphala!

Barkoxeko kuseilian

Dira phena handian,

Aphezen ezin ezariz kuntent diren alojian:
Musde Merzi ezar-izazü zük zure jauregian.

Barkoxeko gizun gaztik

Ziren projet hartürik,

Behar ziela prozesionin uhuratü Jesús Krixt,
Eta ez zük abunitü her egitia gatik despít.

Gizun gazte hen plazan

Ezari züntün herrokan

Haur zentzü gabe elibat jaun anderen arropan!
Bere arropek amiratürik etzien pater bat erran.



Gure Jinkua eiki
 Etzen aleman kastati;
 Hartakoz uhure haren etzaizü izan aski,
 Süjet harez etzelakoz sorthü zure askazi.

Gure Jaun erreтора,
 Nuiz dükegü plazera
 Zure juiten ikhustekua ez ützü gein seküla,
 Eztügü nigarrnik eginen azken bi juner bezala.

MUSDE TIRAZ

(1860)

Musde Tiraz zük enaizü
 Nahi ükhen kobesatü
 Zeren dütüdan Barkoxeko aphezen khantorik huntü;
 Haiez plañitu zirelakoz zihauk ükhenen dütüzü.

Eskiulan Musde Tiraz
 Plañuz entzün ditit zützaz,
 Bethi zerbait galthoz zirela arranda beitüzü eskaz,
 Mila lüseki ezpeitirozü urthin zure büria haz.

Sei hilabete dü egin
 Eskiulara zirela jin;
 Gerozti sei barrika ardu edan tüzü ordenari,
 Beste sei ükhen bazüntü bardin edan beitzüntükin.

Omizen egon zinandin
 Mila lüs ttipi batekin;
 Bena Eskiulan behar düzü zamaria ere hazi;
 Beste mila lüs herriari behar düzü emanerazi.

Eskiulatarrak kuntzebi
 Musde Tiraz dela handi!
 Satifatzeko behar dila mila lüs emendü hori,
 Zeren kapita zakia beita largatzen zahartziari.



Musde Tirazen Jinkua

Thipiñan handi kozina;

Haren ama birjina aldiz, ollaki salda gizena,
Horien ororen pusatzeko ardu eta likür huna.

Musde Tiraz behar düzü

Bikaritto bat galthatü,

Hari lanak eragin eta ziharek untsa phausatü,
Zeren lan egitia zure partida handia düzü.

Sarrantzeko aphez saintik

Dira zü bezañ jakintsik;

Haiek emanik amust oroz Jesüs errezebitzen dit;
Egün oroz juan banendi ükheitek'esperantxa dit.

Eskiulan Musde Tiraz,

Barkoxen Musde Zenmartzo,

Hurak biak perfekt dirade, bai, herri aizuentako,
Bena Jinkuak lagün bitza haiek nik maitha artino.

MENDIKO HERRIAN

Mendiko herrian Jauregiberria

Han düzü laborari alhaba lilia;

Nik entzün düdanaz, eztakit egia,

Ezpeita hura ere phenarik gabia;

Haren doloria,

Arratsan ohian

Lagünik gabia

Eta begiratü nahi bere uhuria.

Ama mintzo nitzaizü alhaba gati

Zer erraiten dereizün bere gogoti:

Ezkuntü nahi dela ezta presiski,

Eztela debeiatzen zirozü zureki;

Bena hargati

Eztakizün gaitzi

Hark errana gati

Dotia behar dila bere linjareki.

Süjet hunen ama zuin beita present,

Koblatto bat dizüt haientako huntzen;

Eder eta saje zer gaiza emazten

Persuna huntan gañen zuin beitüt ikhusten;

Dohaiñ hurak zeren

Arraro diren

Mündian edireiten

Has gitian Jinkuaren erremestiatzen.



Khantor' egiliaren gajia zer den,
 Kobla huntan dizüt esplikutzen:
 Zirekila lotzia eztizüt galthatzen
 Zeren ni beniz beldür emazten arropen;
 Kotapek zeren
 Benaie lehen
 Usuki ükhen
 Kolpütto batez nüzü zire ganik kument.

MUSDE DEFFIS

(1828)

Felizitazen zütüt, Defis jaun jüjia,
 Departamentüko süjeten lilia!
 Irus estima nirozü, Jauna, ene büria,
 Eman ahal banezazü merexi uhuria.

Üskal-Herri huntan balitz moda
 Prozesen üztekua Defisen eskila,
 Elio lüzaz prezia prauben arrazu txarra
 Haier elio ez idek beraiek jan beharra.

Defisen tendrezia, maleruseki
 Presuntegian diren kriminel haieki!
 Kundenatzen tü eztiki, nahiz korrejierazi,
 Nigarrez daguelarik her dolüz bihotzeti!

Defisen sortzepenaz nüzü orai mintzo:
 Nik entzünik düdanaz da seme Tarbako
 Hanko amek balütie sortzen haurrak holako
 Intres lizate har gintzan orok emaztik hanko.

Jauna jüje zirade Donaphaleguiko,
 Damürik ez president egün Paubeko.
 Hanko jüjik balirade zure boronthateko,
 Fite prest nündükezü etxerat üzültzeko.



Ümilitatia eder nubleziareki

Eta karitatia aberatsareki;

Dohañ horik arrarozki dirade alkharreki,

Bena Defisek badütü unestatiareki.

Musde Defis denian promen an juaiten,

Anderik süjet gütiz partzera agertzen;

Zunbaitek balekie inkantün dela saltzen

Dama franko balizate antxeraren phusatzen.

Paubera banuazü, gaxua, trixterik,

Nahigorik libratü Donaphaleguirik

Bena ezarten naizü, Defis, korajatüririk,

Han edirenen nizala zützaz librerazirik.

Etxahun-Barkoxe, doha gabia,

Emaztia-gatik malerus jarria,

Zunbat ehio estima hik bahü uhuria

Ükhenik libertatia, esker Defis jüjia.

Hau da berset azkena egiten düdana

Zure felizitatez, Musde Defis jauna,

Dakidalarik hartako inkapable nizala

Ene izpiritiaren eskasa dela kausa.

MUSDE LEGOUVE

(1823)

Musée Basque — Bayonne — MS 64 — 7 (Don Péria)

Monsieur Monsieur le procurur du roi les voilà

le copie des chansons que je fites par monsieur Legouvé

voire cher ami le 20 octobre 1833.

Zelüko jinko maitia, egidazü lagünzia

nahinüke bersetes partü puetetako nausia

Eta hari kunparatzeko, nik manka spiritia

parisen musde Legouve, obrak ageridirade

aita zela mündianzeno, libürü famus egile

eta semia bersulari, üropan parerik gabe

pariserik hastingara, jaun hura heltü izanda

erregeren proküradorik, egin batzarre ederra

eta plasereki hedatü, bere mahainin tahailla

musde Clerice jaunari, deklaratzera da jarri

desiratzen lükila enzün zunbait üskaldün koblari

etxahünek nahi beitzükün enzün kunpañan hits hori

musde Clerizak ditazü, lettera eskiribatü

donaphalegin nahizila, süjet hura satifatü

ene koblak enzünenzütin, nik han ükhen banü bathü



üskal herriko jentia jente jakite tzipia
 espeitügu bortü hoietan pariseko talentia
 bena badügu anderetan, han estien berthütia

enzündüt musde Legouve, zirela emaste gabe
 andere eder aberax bat, espusaezazü hebe
 parisera ziratinián, eginendeizü uhure

üskal herriko anderik, dirade izaren parik
 bilhuak hoilli, begiak ordin eta ajil haien airik
 ekhiak bezala brillatzen haien mathelen kolorik

jaun gastiak paseiari, zü Legouve hala ari
 Bena halako anderebat, etxen bazünü gaiari
 etzinateke tur de franzan nahi haboro ebili

parisen bada andere, zunbait unest beharrere
 bena üskal herri hoietan, oro halako dirade
 nahi bada jaun gaste propik, maitedütien hezere

Musde Legouve gastia sütilitatez bethia
 khorte egüten bazeneza, enplega spiritia
 zük aisa inganaziniro, herri hoietan haitia

zelietako jinkua da ororen gañekua
 suit deizüt emandizazün harek zure gustekoa
 haren gozatzeko loria eta gero zelükua

musde Cleriza pharkatü, espazütüt satifatü
 pariseko sabantenari aldís erranenderozü
 barkoxeko iñorantenak, khantiak deitzola huntü

*Monsieur Monsieur le procurur du roy
 je vous le lesser aux mains tierces
 pour vous faire confus de mon ignorance
 a presence de votre estimable personne.*

Le 29 octobre 1813.

*voire incapable serviteur
 topet dit echabon*



MUSDE HEGOBE

Hunki jin, Musde Hegobe!

Üskal Herrik dü uhure

Pariseco lehen süjet bat ikhus zitzagün zü hebe;

Zuri hunki jin egiteko gü baginande kapable!

Pariserik Zamatzera

Zure promenän jin zira.

Erregeren proküradorik egin batzarri ederra

Eta plazerreki hedatü here mahañin tahalla.

Musde Clerissa jaunari

Zirade galthoz ezarri

Nahi zünükiala entzün zunbait üskaldün koblarri

Zure satisfatzeko deitzü Etxahun huna igorri.

Zure aita Zen Parisen

Nausi poeta ororen;

Eztüzü miraküllü gero, zük ükhenik ere talent,

Azi hunak frütia beitä, bera üdüri ekhartan.

Üskal herriko jentia,

Jente jakite txipia!

Bortü hoietan eztizügü Pariseko talentia,

Bena anderetan badügü han eztien berthütia!

Parisen bada andere

Zunbait unest düda gabe;

Bena üskal herriko hoiek, oro halako dirade

Nahi bada jaun gazte propik maite dütien hek ere.

Üskal herriko anderik

Dirade izarren parik;

Kolorik gorri begik argi eta ajil haien airik;

Bethi ere hobe gozua bortü ondoko haragik.

Jaun gaztiak paseiari,

Hegobe zü hala ari;

Bena holako arruket bat balin bazünü gaiari,

Etzinateke «tour de Franzan» haboro nahi ebili.

Musde Hegobe gaztia,

Sütülitatez bethia:

Khorte egiten bazeneza oküpa izpiritia,

Üskal herriko anderetan zure lükezü haitia.

Musde Hegobe pharkatü,

Ezpazütüt satisfatü;

Parisera zirenin heltü, erraiten ahal derezü

Barkoxeko iñorantenak khantorik deitzüla huntü.



MUSDE CLAIRISE

(1833)

*Musée Basque — Bayonne — MS 64-8 (Don Péria)
Monsieur Monsieur le Procurur je vous les ai refet
vos chançon perssumant dans lesquels j'avais
mis certin vers trop indecen par votre bonnorable perssone.*

Musde Clairise zü herrin, zütügü lehen uhurin
parisien baten khantiak, ükhendeistatzü eragin
bena orai zuriak ere, nahi nitikezü egin.

Aita düzü hastingako, jüje peira huradako
zure leñia izandüzü, Bethiere uhuresko
Bena zük jauna esterozü, errenumia hertüko

Erregek proküradore, izentatürük zirade
espeitzeikegün izentatü, diñigorik ihurere
arrondisamentü huntako, Belhariko junizere

Spiritiren ederra, ümilitatia bada
Bena musde Clarizareki bi dohain hurak badira
minzatzen denian jenteki aingürübat üdürida

Ni balinbanins andere zunbat bezala kapable
zurekila konbersatzera, jauna enüke herabe
Bena estit amens phensatzen herabedien hezere.

Hanits dama ikhustendit, aberax eta ederrik
aski partidü hunik gabes eskonzeko daudianik
Bena zure hitza balie elitake egon hanits

berset haudiret bereber, donaphalegiko damer
zure amurusterasteko izanditian menajer
zü üdüri partidü güti jinenzaiela estranjer.

Irusdükezü, madama, klerisa zure egina
Balibaleki, zerdin onsa, jinkuak deron fortuna
Hari eskerren emaiteko, plegalirozü belhaina.

Hoiek dütüzüla khantik jauna nik zure ezarik
Bena hartzen balinbadüzü ni nizano emasterik
hits deizüt ükhenen düzüla hoies ez bestelakorik.

*Monsieur monsur la bate ma beaucoup de faute et rature et je ne pas pis du
temps a les refere; comme vous le savez j'étais alé le 24 du courant et a falu
rester la jusque le 28 et quant aux chançons faites en ma propre je vous les
en voyerez si tot possible ayant fait chez moy et qui que ce soit vous deman-
dez de moy vous suffira de me marquer, je serez journelement votre servitur
et je ne serez comment vous remercier vous m'avoir fait avoir du sieur
Legouvé 20 f. votre très humble servitur pour ma vie si je suis capable pour
rien.*

*Je vous salue
topet dit etchabon*



ÜDOIEN PROZESAREN KHANTORIA

(1841-1842)

Bi berseten huntzera nüzü abiatzen
 Donaphaleüko jaunik arraruenen;
 Egün hurak beitira jinik Barkoxen,
 Ahargo gañiala aidiaren hartzen;
 Han denetik sortzen
 Badire bizitzen,
 Ez dire gizontzen,
 Sanorik beitira etxerat ützüliren.

Jüstizia jin zira egün Barkoxera,
 Hanko atenterek plazer beitzien hala;
 Bena jüja izezü haien prozesa,
 Bakia ükhen dezen Üdoien gogula,
 Ahargo zabala,
 Mendi komünala,
 Oro dezan zerra,
 Lürrez aserik hel dadin zelüko borthala.

Üdoien aizuez nüzü estunutzen,
 Nulaz bere deseñian dien trublatzen;
 Ützi ükhen balie, harek betzeitzen
 Haien atendak oro phezuez zerratzen,

Ezarten betzeitzen
 Bildürük arratsen
 Kabaliak etxen,
 Eta phakü hura haiek ez estimatzen.

Donaphaleü da egün florisan,
 Zeren jüstizia abitatzen den han;
 Han bada President bat eztenik izan
 Ez halako süjetik kumarka hoietan;
 Lagünak ber gisan
 Ditizü akitan
 Bere kargietan,
 Holako erregelarik ezta jüstizietan.

Felizitutzen zütüt, Musde Vivie,
 Donaphaleün zira aspaldin jüje;
 Estatü horrek deizü hanitx uhure,
 Haboro ükheiteko zirade kapable;
 Aberats zirade,
 Banitate gabe,
 Jenteki afable,
 Ordenariz jente handik holako ziradie.

Musde Vivie jaunak hartü zin espusa
 Pariseko depütatü baten arreba;
 Nahi balitz izan kargian gora,
 Hura ban belüke, ai zer hegala!



Bena düzü hura
 Sobera abilla
 Beitaki segida:
 Anbizione gabe dena dela irusa.

Musde Vivie Jauna balitz andrekari,
 Aisa egin lirozü hanitx erri,
 Filosofiaz beita ilüsi garri
 Eta domenanta profetak üdüri;
 Bena eztü nahi
 Egin desplazerik
 Bere Madamari
 Ez eta laidorik zelüko Jaunari.

Felizitatzen zütüt, Musde Frederik,
 Donaphaleün ezta defensür hoberik;
 Zurekila dütüzü Barkoxeko tritik,
 Zuri gomendatürük komünaren altik;
 Zure ispiritik
 Badira sendorik,
 Bere phenetarik,
 Üdoiek ezükezü zure axurkikarik.

Musde Basterrexa zer defensüra, zü!
 Arrazu gaxtua (ere) zük huntü gei düzü;
 Orai ere hala egin behar düzü,
 Üdoien intresa maite badüzü;

Partidak bazaitzü
 Jarri nahi khexü
 Gorago mintza zü,
 Emazte gaxtuak (ere) senharra hala goitzen dü.

Berset horik egin tit ahal bezala,
 Enilakoz süjetek zien eskola;
 Bena haiek badie bonür harekila,
 Huntarzünak handirik, kargütik arranda,
 Ni hütsik sakola,
 Nahigorik lüis bat
 Süjet haier beha,
 Berriz (ere) egin neikie nik haier kobla.



SOHÜTAKO EZTEIETAN

(1841)

Barkoxerik horra niz egün Sohütara
Ene herritar diñen felizitatzera,
Ezagütürrik ezi merexi ziela
Holako süjet nublek mahañin bi kobla.

Felizitatzten zütüt, kunpaña nublia
Eta zü berheziki, Madama Jülia;
Libertirazten düzü zük egün mündia
Eta irus ezarten alhaba lilia.

Madama zü zirade hun handi düzüna,
Zure mereximentik emanik fortuna.
Zure haurrer zirezü galdü aita huna,
Bena ez haien gida bizi deno ama.

Irus ezarri zira andere Adela!
Zurekila beitüzü espos bat ederra,
Unest eta sajjia, zü ziren bezala:
Hura züzün Madamak nahi zin plazera.

Felizitatzten zütüt, esposa lilia;
Zure ama düzüna emazte handia;
Harek maite zilakoz haurren uhuria
Egün hartürrik zira espusa nublia.

Dürollanten liñiaz nüzü orai mintzo:
Haiek die fedia erlijionientako;
Hirur jaun izan tüzü aita elizako,
Bat aphezüküpu eta biga arxebixko.

Madamak diozü Dürollanti erran:
—«Sorthürrik izan zira ni nizan khanberan;
Nik ere sorthü beitüt zunbait alhaba han,
Hetarik nahi deizüt espusa bat eman.»

Dürollantek diozü eman arrapostü;
—«Sohütako herrian laket izan nüzü;
Hortakotz nahi deizüt alhaba bat hartü
Ni sorthü jauregian ebil nadin üsü».

Muntauterik zirenin jin espusatzera,
Sohütako herrian handi zen plazerra.
Herria jin zereizün bidila partzera;
Tabal, müsika eta soldaduekila.

Jauna zure gradua düzü abokatü,
Zure izpiritia nahiz oküpatü;
Zü ziren jüstiziak bethi nahi dizü,
Zure abisen arau prozesak jüjatü.



Berthütia denian nubleziareki,
 Hura düzü ürhia diamantareki,
 Dürollantek batizü hurak bereki,
 Zeren ezagün beita bihotza mihiti.

Adela, sarthü zira Dürollanten kastan
 Ebiliren beitzira uhure handitan,
 Haren askazi nublen jauregi orotan
 Heben eta Muntauten zihaurienetan.

Jauna, uhurez zira zure ezteietan,
 Üskal Herriko lehen süjeten kunpañan;
 Eta estranjer ere zunbait badüzü han,
 Arauz adixkide badüzü orotan

Adela, egün zira hanitx plazerretan,
 Zure espusareki zure ezteietan;
 Jinkuak hel zitzala egüngo jeietan
 Oraiko (ber) lagünaren khantin zelietan.

Madama, hanitx jente badüzü mahañin,
 Zük orori ederki egiten hunki jin;
 Jinkuak ber batzarri deraizüla zelin
 Zure heriotzeko orena jin denin.

Phartitziarekila deiziet erraiten
 Ünione hunian bethi bizi ziten
 Ene errespetiak deiziet eskentzen
 Jin nintzan bidetik nüzü abiatzen.



MUSDE XAHO

(1849)

Khantore berrik

Barkoxerik Baionara juitez, huntzen düt bi kobla,
Nahiz haiez felizitatü musde Xaho han den hura,
Haren ezpiritia banü, egin beinirio aisa.

Haür naizüla, musde Xaho, dütüdana phenak oro;
Hunak, emaztia galdü-tit, eta uhuria gero,
Haien ebaslek, ogen gabe, etxeki beinaie presu.

Egin dit hanitx khantore, azken huntik aldiz zure,
Nahiz inprima ditzaztatüzün, jar nadin haien salzale,
Bizia irabaz — dezadan, ezari gabe eskele.

Musde Xaho Atharratze, adinez zirena gazte,
Bena ezta zaharrik ere, dinik haboro, jakite,
Ez jente talent handietan, dinik hainbeste berthüte.

Abill, eijer, ezpiritus dena da üsin handius;
Bena, zü, dohain haiegati, etzirade fantesius,
Ümil, afable zira eta, behardenian, korajus

Adina zaizü goratzen, ezkuntziaz ez okartzen,
Zure ezpiritü unestak beiteizü lüza-erazten,
Areta berhaiñ bazenakike, züz, dama gazter minzatzen.

Zü zira gizon gaztia, maleruseren ezta;
Zure ezpiritiren famak hartürik dena franzia,
Depütatü izentatzeko, zirena listan hartia.

Zük düzü denbora bethi, praüber nahiz egin hunki,
Aberats nublek beikütie jente xehia iretsi,
Her hunki egin nahiz düzü, kargü hartzia unhetsi.

Lehen ere zinatın zü, Xaho, izan depütatü;
Bena botzak gorde zeitzen, hanti züntien traditü,
Aphezek eta jente nublek beitzien hori kaüsatü.

Aphezek etzütie, zü, nahi egin depütatü;
Entzünik nahi deitzezüla, haien arrandak txipitü,
Lotsa beitira oillo saldak behardeikien mankatü

Kargülant, nubliak ere, Xahoren kuntre dirade,
Jente xehiak jan beharra, hen gajek behar beite,
Eta harek txipiraziren, hura sinhesten badie.

Parisen tie kargüti, depütatiak idoki,
Haietan beitzen hanitx handi, txipien kontrerik elkhi,
Bonapartek igorri dütü, egin beitere ederki.



Orai behar beitütügü, depütatiak berritü,
 Üskal-Herriko jentik oro, nahi zütiet othoitü;
 Kargülant, nubler ez rantierer, eztela behar fidatü.

Botzak eman-itzatzie, praubik dütiener maite,
 Ezi hurak izanen-dira jente xehiaren althe,
 Xaho depütatü baledi, hura hen hala lizate.

Üskal Herriko jentia, inpot injüstos bethia,
 Egizie musde Xahori, zien botzen emaitia,
 Harek eraginen darizü, gure phetxen txipitzia.

Nahi-bada Bonaparte izan jente xehen althe,
 Musde Xaho mintzo-datinin, hari beha laket-date,
 Eztate hura handi, nuble, gure jale-hen ahalke.

Musde Xaho behar düzü, aldi huntan kargin sarthü,
 Bestela Üskal-Herri hunek, behardü düpe baratü
 Behar beitüke aberatsen injüstizier pharatü.

Kargülant, nublik dirade, dienak sobera gaje,
 Jente xexe miserabilia, aldiz haien phakazale,
 Ezpazütügü sekurs gei; bai bethi izanen ere.

Jente xehek behar dügü, jinkuari gomendatü,
 Eta Xahoren depütatü igaraitia galthatü,
 Bestela handier esklabo behar-dükegü baratü.

Berset hoiek zítit-egin, nahiz depütatü zítin,
 Zureki nahi beininzate Parisera ni ere jin
 Ene hunen errenderaztia, Bonaparti zütaz galthegin.

Pierre Topet dit ETCHAHOUN

Bayonne Imprimerie de P. Lespès.



MUSDE RENAUD

(1850)

B. N. Paris, Z basque 69 et Yo 19

Chansons dédiées à Mr Renaud, représentant du peuple

Par Etchabon de Barcus

Barkoxerik heltüniz, doneguanera

Musde Renaud zuretzat, eginik bi kobla:

Zure fama handia, heltü beita hara,

Zü idüri süjetik, Franzian estela

Hain ürrikaldianik, persuna beharra

Jente xehek zintügün, egin depütatü

Beikanakin haien, hun zinatila zü

Zure lagünètako, güntinak haitatü,

Zü zinen sistimako, balira, gerthatü,

Espeitzatin Franzian, hainbeste thürmentü

Felizitatzen deizüt fama, musde Renaud,

Pariserik zirena, jin berri orano.

Bainan hurra jin zaitzü, lehen zihäü beno,

Hanko Jaünak bagintü, zü beizain humano,

Eskiniroiiala haz, hainbeste tirano

Pariseko senbladan zük düzü fierki,

Jente nekez bizien intresa etxeki:

Bainan zure lagünak ez kunbertiazi;

Espeitziren zure berthütiareki,

Berak untsa beitira, paubres axol güti.

Bizi ziren gaxua, zure travaillüti,

Othoi bethi jinkua, Renaud dadin bizi:

Eta depütatien, berritziareki,

Hüra bezalakuer, eman botzak bethi,

Nahi baditüzie, zergaz gütirazi.

Departamendü huntan, etzen Renaud baizik,

Hamar depütatüetan, paubren hunik jalki:

Bainan hura estie, berzek gaistorazi,

Espalira nunbrian, hurak izan näüsi,

Gure zerga handiak, zitükian jaixi

Renaudren berthütiaz, niz orai minzatzen

Persona aberaxak, nahiz segi detzen:

Nahits huntarzün badü, hanitx irabazten,

Eta halere hura sobreaki bizitzen,

Gero soberatia beharren phartitzen.

Aberrax gora, eder, gaste, habil hardit,

Balakuetan hunest, güti ikhüstendit:



Bainan zü musde Renaud, hala zirelarik
 Ezteretzü egiten, ihuri khorterik,
 Aroüs nahi düzü, segitü Jesús-Xrist.

Musde Renaud erretzü üsatü bezala
 Depütatü lagüner, bil hundun senbladai
 Tabak eta arduak, ditzagien libra,
 Eta komünetako, bazka et egürrak,
 Beste mündian berak, esditian erra.

Barcus, le 30 octobre 1850.

Etxahon

Bayonne — Imprimerie Foré et Lasserre Rue Orbe 15

GURE JAUN APHESKÜPIA

*Musée Basque — Bayonne —
 MS 64-14 — Don Manu de la Sota*

Gure jaun aphesküpia, diozesako prinzia
 zük gidatzen deizüzüna, erlejione saintia
 Indiñerik egindezüt, bi berseten hunzia
 Nahis hes felizitatü, zük ükhen berthütia.

Sorthü zinen Rhodasen, seme aitama nublen
 Han uhures eta hunes, lehenak ziradinen
 Bena zü oro ützirik, aphestera juan zinen
 Nahiz jesüsen segitü, eta apostolien.

zü zira aphesküpü, izana izentatü
 Jesús Xristek bere hitza, zütan beitzian kunplitü
 Haregatik bere hunak, zütianer kitatü
 Ehünetakus haboro, beitzeren prometatü.

Aphes zinen denboran, etzüzün erresuman
 Xüzenago zabilanik, haiek behar erreglan
 Hits saintiak pheredika, eta espazünin han
 zure khorpitz mortifika, egoites erretretan.



Aphes hunak dirade, abis hunik emaile
 Mündüko hun plazer eta, uhures kasü gabe
 Karitatus esti prudent, ümil, unest eta sobre
 Munseignur berthüte hoies, zü doratürrik zirade.

Izan bazina erruman, zinen bezala Baionnan
 Etxekiten zünialarik, hebenko kundüta han
 Kardinale zinatian aspaldiko denboran
 Eta bentüras jarririk, aita saintiren kaideran.

zure bihotza bethi, düzü jinkuareki
 Nahis haren zerbützatü, eta zerbütxerazi
 Etzirade oküpatzen, zü deuses hares baizi
 Spiritü Saintiaren, sua beita zureki.

Mun seiñür zeren ziren düzüna hainbeste suein
 Gure salba erasteko, zure diozeseiñen
 Gida hunik derizüzü, herietat igorten
 Hanbat gaisto guretako, espatügü sinhesten.

aphesküpütüs gerosti, egonzira gureki
 gure erlejonia, beitüzü doblerazi
 zük eman tüzün abises, eta eman erazi
 zunbat arima estizü, zelian sarerazi.

moun Seignur orai ere, zü ebilten zirade
 jente gasten konfirmatzen, hen jarerasten saje
 zeren hura exatoki, hartzen balin badie
 spiritü saintiaren, dohainak beitütie.

persona komfirmatiak, begira hartü graziak
 hura gomendatzen deizie, zien aphesküpiak
 hura gidatürrik beita, spiritü saintiak
 nahi lüke gidaginzan, haren gisa güziak

munseignur nula beita, oro zük düzün büta
 gure salberazi nahia, etzitiala fluxa
 guretzat othoi egizü, eskitzan mündik trunpa
 zureki ikhugütatzün, zelian zure trupa.

ene süjet perfeita, diozesako aita
 handen karitatusena, zure persuna beita
 hari gomendatzes deizüt, hunzen asken berseta
 ni bezain malerus denik, mündü huntan espeita.

jabek fraudas bost etxalte, ditazie ebaxi
 hen xangriak hogeï urthes, herratürrik etxeki
 espeitüt beste sekursik, jente hunena baizi
 hartakos zerbait nahi nüke zure eskü saintütü.



PHIXTAKO OLHA

Bi berset berririk nahi tüt khantatü,
Phixtako olhaz eta artzañez mintzatü;
Hamust egünez beitüt gaxura han hartü,
Berset horiez deiet egin nahi phakü,

Ünhürritze bortian da Phixtako olha,
Olhalte huna beita, bai eta ederra;
Bena artzañ auherra ez duala hara,
Ezpeitüke aizina egoiteko hala.

Phixtako olhaltia sorhoz aberats da
Bena harek diana, beitü hanitx baxa;
Kabalik han sar-eta lotsa dira mankha
Hartü behar dizie abisü handia.

Phixtago kabal-zaiñek badie bereki
Hamabost ehün arres ehün behieki,
Urde zahar salduak, bohorrak hümeki,
Ezpeitütie nahi artzañak lo ützi.

Phixtako ardi eta kabalen üsantxa,
Españako hegilat laster zuin lehenka;
Gero artzañ gaixuak onduan lasterka,
Egüna bezain lüze da haien kunbata.

Españako hegian egoitia gaitz da,
Iazarria denian bustirik bizkarra,
Eta Phixtesek egon behar die hala,
Beldürrez Españulek kabalik püñera.

Phixtako kabal zañak oro dira gazte,
Haboruak mixkandi, bena nausiak maite;
Hek bezala kabalik erabil balitze,
Bortietako olhak oro hun lirare.

Phixtako olha die jentek hun egiten,
Kabalik beitütie untsa erabilten;
Arrazu horrek deit eni erranazten
Artzañ hunak dila olha hun'egiten.

Aberats den artzaña ezagün da bethi
Bortilat juiten dian bere anhuati;
Phixtesek lan badie, bena untsa bizi,
Hamabost ogi deiet osorik ikhusi.

Ezta ez Phixta beno olhalte hoberik,
Ez eta ere han beno kabal'ederragorik,
Ez zazpi olha nausi aberatsagorik,
Nahiz baden ürgüillü haboro dianik.

Artzañ gaztik deitziet berset horik huntü,
Nahiz izan zitiem maitez ezagütü;
Ezi nahi dianak gizuna haitatü
Olhan zer kondüta din behar dü galthatü.



COMPLAINTE HEGILÜS

1848

B. N. Paris — Yo 259

KHANTORE BERRIA

Bi berset tristerik huntzentüt, süjeta beütüt ikhusten,
Arrokiga hegilüzeko jaun anderen, hilzen gañen.
Beren barrio keheillan, asasinatü beitzütien,
Eta ihurk ez jakintü, haien erhailia nurzen.

Sehan emaste galant hurak, hil beharzien goizian,
Merkhatialat juaiteko, ziren nezesitatian,
Bai eta jua ützirik, dendaria bera etxian,
Eta beren erhailia, hek etzakien lekhian.

Merkhatütü jiten ziradin, ez phenzatzenzielarik
Burreba haidürüziela, etxe khantian gorderik
Senharrari hauxezeren, helzian büria lehenik
Gero emaste gaxuri, ihesi juittenzelarik.

Exaiak hatzamanzianin, oihü eginzin emastik
Nurbaitek erho nahi beinai, jenebieba helakhit!
Jenebieba jinzeion, bena ez harez profeitürük
Zeren ordükos beitzian, ezari hil ürhentürük.

Jenebieba jun izanzen aizuen abertitzera,
Hegilüzek erhoziala, emastia erraitera.
Aizuak laster junziren, emaste gaxuri helzera,
Bena hurak jin gabe jun, bien erhaile krüdela.

Jenebieba nuren odres, hits falsü hau erranzünin,
Aizuer eta jüstizia, hegilüzila jinzenin.
Senhar hil batek ziruala, erho ahal emastia
Gero beraren büria, emastia erhozinin.

Jüstiziak espeitzerizün, nahi egin sinhestia,
Senhar hil batek ziruala, erho ahal emastia
Eginzerizün bereki, presuntegilat eruitia,
Bena ez zürü eragin, erranes khanbiatzia.

Etzüzün ez kadet hegilüs, emastiren erhailia
Sobera zizien algarren hek amurio handia
Bainan bai besteren odres, atzioneren egilia
Bestela jakin günükün nurzatian kupablia.

Dihariak eragitendü, mündü huntan hanitsgaiski
Eta krimak fundierasten, mündü huntako jenteki;
Bi heriotze egin, zük hala tükezü haieki:
Bena loxa izanzite, estiradin jinkureki.



Kain ere etzian jinkuak, mundias pünierazi
 Bena bai haren kitatzian, ifernialat egotxi.
 Areta harek etzian egin heriotzebat baizi;
 Biga egindükianak, zer behardü egürüki?

Hegilüzen erhoraslia, orai zuri nis minzatzen
 Nahi bada ezinzütügün, nik ez bestek izentatzen
 Zük eragindüzün kríma, beiteizüt nik klarki erraiten
 Etzükiala tigriak, ez lehuak egin ükhen.

Bi persuna ükhendütüzü, insolenki galerazi,
 Zure esküti etzienik heriotzia merexi
 Eta haien erhailiren arima zihauenareki;
 Bena kupabliagua züzirate jinkureki.

Mündü huntako jüstiziaz diradinak pünitürik
 Beste mündialat badutza, bere krimes garbitütik,
 Bena ziek beitziraie junen haiek theiü ützirik
 Berhartüzie pünitü, salbalzekos zien bürík.

Nurk nahi erhodin hegilüs, eta haren lagün huna
 Nahis haienaren edeki, edo haier zinas haina
 Bestek egin bekhatiek, espeikitzakie gü dauna
 Ditzagün hen faltak ützi, eta gurik examina.

Hegilüzi beraren hunak, bizia khentü balero
 Hares kupable lizatinak, nula goza ahal liro
 Eta haren bekhatia, jinkuak nula pharkadiro
 Igaran balezaere, nigarres denbora oro.

Gizon gastiak egizie, berset hoién khantatzia
 Eta ez hoién süjetaren lanjer handian jartia
 Bere krimak beiterie egiten barneti jatia
 Galerazi beiterie, zelialako tritia.

Jinko jauna zük bekhatores, harezazü pietate
 Eskandalak eta beharrak, galzen beitü hanits jente
 Kantore hoién süjetek ere bazükien berthüte
 Izan balira aberax, eta fortüna hen althe.

Topet-Etxahun

Bayonne, Imprimerie de P. Lespès.



AMODIO GATI

1854

Eni zeitanak behatzen dü entzünen

Iraxibauko semia nula hil den;

Etxandi Garindañek beitu eho Maulen

Merkhatütik etxerakuan biden gañen.

Luistto hori zen merkhatin deseñ hunin,

Bere etsaiareki nahin baken egin;

Aihaltü ziren algarreki Xaxienin

Eta etxerat abiatü destenorin.

Hiriti jalkhi zirenin hasi ziren

Ihur etxakin zer gatik aharratzen,

Bena Luisttoren botza bertan ixiltü zen

Hamahiru nabela kholpü beitzin ükhen.

Hilari entzün zeren hau erraiten:

Intsolenta, zer süjetez, naik ehaiten;

Arrapostia, ehait eho bai ehoren,

Haboro ene kuntre ehiz mintzatüren.

Gaia oro igaran zin ertzik eskin

Lehen igarailetarik sekurs nahin;

Bena hura hara zeneko zen hil phüntin,

Hari bortxaz erran ziozün nurk eho zin.

Hel zakhitzat, paseiari goiz jeikia,

Eta ikhus ene khorpitz blesatia;

Bestek egin beteitadie ehaitia,

Zük othoi, egin izadazüt señatzia.

Iraxibauko semia, kausa zer zen?

Nulaz hain etsai krüdelä zure bazen?

Gizunak behar dizü ükhen hanitx ogen

Hainbesteretan lanthatzeko nabelaren.

Etxandi Garindañe nin khexü bethi,

Haren amoria benin nik askazi;

Nik hari erran ezkuntiak litzan ützi,

Hitz horregatik eho nizü hañ Krüdelki.

Posible deia, Etxandi, hi hañ handi,

Hik othian egin dian krüdelä hori?

Bizia deronak idoki personari

Beria ere zor diala, orhit hadi.

Zazpi haurren aita baten kolore zen,

Emaztia zialarik bizi etxen,

Amore gatik ari zadin gizun hiltzen;

Satan etzen hareki gaxki libertitzen

Etxandiren anderia, orhit hadi

Nur gatik egin izan den hiltze hori,

Hire gatik hil izan dela hire kosi,

Arima nahi zeñalako z salberazi.



Orai jüstizietan, krima handik
 Kreditak dütienek pharkatürrik
 Eta praube jüstuak aldiz pünitürrik,
 Pilatüs üdüri beitira oraiko jüjik.

Berset horien egilia jüjen gati
 Presuntegian egon da injüstoki
 Eta galdü bost etxalte haiegati;
 Zunbat jüsto den jüstizia phentsa horti!

I

HILTZERAKO KHANTORIA

Nahi balinbagira hil eta salbatü,
 Arte huntan behar gira kunbertitü,
 Bekhatü egiteko kostüma kitatü,
 Leheneko eginetzaz nigarretan sarthü,
 Berriz ez lerratü,
 Ahalaz begiratü,
 Untsa kobesatü,
 Hiltziaz orhitü:
 Denbora juanez geroz eztate profeitü.

Sortzen giren güziek zor dügü hiltzia,
 Ezta lüze mündü huntako bizia;
 Kita dezagün kita hebenko lehia,
 Garbiki etsamina gure kuntzentzia,
 Beste mündian da
 Gure jüstizia;
 Azken setentzia,
 Zer oren trixtia!
 Eternitateko phenaren lüzia!

Phena hetaraz geroz ezta libratzerik,
 Eternitatiak eztü finitzerik;
 Zunbat arima gaxo han kondenatürrik!
 Seküla libratzeko ez esparantxarrik!



Hetzaz orhitürük,
 Gauden lotsatürük,
 Etsenplü hartürük,
 Arimak garbirük,
 Nuiz nahi phartitzeko mündü huntarik.

 Mündü huntako phenak eztira deusere;
 Bestekuen althin itzalaren pare;
 Urthiak miliuzka jinikan ere,
 Misericordiarik han ezta batere,
 Zelüko errege,
 Egizü fabore,
 Orai zuri gaude,
 Othoi altxa zite
 Gure arima doloratien jabe.

 Jaunak igorriren dü zelütik mezia,
 Komesionia date heriua;
 Hura jinez geroztik juan behar gira,
 Gure jüjatzalia han prest izanen da:
 Gure obra hunak
 Bai eta gaxtuak
 Haien arabera
 Jüjatüren gira:
 Memento lazgarriak ordian han dira.

Jauna zure graziak zuñ diren handiak
 Eztaiteke erran handiegi dira;
 Zelüko ekhia eta argizagia
 Jauna gidatzen dütü zure photeriak;
 Gü errebeliak
 Gira zure ardiak,
 Sendo zazü
 Gure arima gaxuak,
 Ez othoi abandona zure semiak!

 Andere dena Maria, birjina garbia,
 Zure lagüntzaren beharrian gira!
 Ofensatü badügü zure semia,
 Zure semia eta gure jaun handia,
 Gitian ümilia,
 Denboraz balia,
 Eternitiaz
 Ohartzen bagira,
 Pharadüsüko borthak zabaltüren dira.



JINKUAREN MANIAK

Bi berset berririk nahi dit khantatü,
Hamar manü horik nula begiratü;
Lehenik behar dügü Jinkua adoratü,
Eta lagün protsimua ahal oroz lagüntü.

Bigerren manian jüramentü güti,
Mihia nahi dianaren erraitera ez ützi;
Horren gañian ezta diferentzia txipi:
Zelilat igaran edo ifernilat iraitxi.

Obligatü gira hirurgerren manian,
Mezaren entzütera igante egünian;
Gero obra hunik egin ahal dügünian,
Gloriaren gozatzeko eternitatian.

Laugerren manian gure bürhasuak,
Gü gatik sofritü dien miserable gaixuak,
Behar deiegü errekonpentsatü haien sakrifizuak,
Halerik ere eztegü phakatüren hartzekua.

Bostgerren manian ihuren ez hiltzia,
(Ala) gaitza gogorra beita oi heriotzia;
Aski dügü Jesüs Jaunian etsemplü hartzia,
Gü gatik kharreatü beitü khürützia.

Seigerren manian begira xahütarzüna
Haren gañian tentazione hanitx izaten da
Bethi begira, maita berthütia,
Gloriaren gozatzeko eternitatia(n)

Zazpigerren manian deusik ez ebatsi,
Bererekin pasa, besten gaizak ützi;
Debriak phusatzen gütü egitera gaizki
Atzamaiteko sariak hedatürik bethi.

Zortzigerren manian hau egin behar da:
Jakile faltsütako ez zerbütxa seküla;
Protsimo lagünari desira nurk guria bezala;
Egün batez gaiza oroz khuntü eman behar da.

Bederatzügerren manian eztügü besterik:
Ez sekülan desira besten espusarik,
Ez besten odolian har behin ere pharterik,
Arima gaxuak ükhen eztezan thonarik.

Jinko jaunak eman tü hamar manü,
Manü hoiien begiratziaz har dezagün kasü;
Gero deusetan ere ez beldürrik hartü,
Ama birjina saintiak lagüntüren gütü.



Jesüs Jaunak Moisi Zinaiko mendian;
 Hamar manü horik izkiribatü zütian,
 Orok ikhas gitzan eta begira mündian,
 Beldürrik gabe agertzeko jüjamentian.

Bedatsian bazterrak berdatzen dirade,
 Josafaten badate heiagora egile;
 Han badate bai hanitx arima trixte,
 Sekülan eternitatian kontsoliorik gabe.

Khantoriak egin tit gogula jin eta
 Ene ustez ikhastia ororen komeni da;
 Gure salbatzeko bidia hoitan da,
 Eztakianik balinbada, ikhastia hun da.

FILIPENĖKUAK

Khantore berri batzü nahi tit khantatü,
 Süjeta ere zer den hetan deklarätü
 Ürxaphal gaixo bati zer zaion agitü,
 Lümarik ederrena betzaio faltatü.

Ürxaphal gaxo horren phena doloria!
 Galdü dizü lagüna, kitatü herria,
 Desertietan dizü bere egoitzia,
 Ala nik ükhen düdan fortüna trixtia!

Üda lili ejerra, oi xarmagarria!
 Tallaz perfeita eta bilho hollia!
 Orai jiten nitzaitzü adio erraitera:
 Itxasoz banuazü fortüna egitera.

Itxasoz juaiteko abisak ükhen tüzü,
 Ideia simple hori othoi ütze ezazü:
 Orai artin bezala biziko gütüzü,
 Bestela heriua deitazü kausatü.

Üda lili ejerra ez egin nigarrik,
 Bardin ez ahal düzü orai profeitürrik;
 Ene lagünak dira bortitan sarthürrik
 Eta ni ezin pharti, maitia, züganik.



Etzitalia pharti ez bihar artino,
Zerbait arranjamentü egin artino;
Orano nahi züntüket mintzatü haboro,
Ameriketarat juan beno lehenago.

Errak amodiua, ni ganik nuiz hua?
Akabarazi gabe bihar abilua;
Eztizadala segi osoki gogua,
Xurit eztaxidan gazterik bilhua.

Amodiuak nizü apha egotxi,
Ezpeitüt esperantxa seküla erremeti,
Intertenitü bai promes hunez bethi,
Engajatü nianian bestentako ützi.

ARENGARAİKO PRIMAREN KHANTORIA

Ahaire zahar huntan bi berset berririk,
Alagrantiareki khantatü nahi tit;
Bihotza libratürrik phena orotarik,
Desir niana beität orai gogatürrik.

Ihurk etzin erranen, ezpeitzin üdüri,
Gogatüren niala maitia jagoiti;
Mintzo nintzeion bethi ahalaz uneski,
Ene erranen gatik hura ezin kunberti.

Abis bat eman nahi dit muthil gaztiari,
Khorte egiteko deseñ dianari,
Jarraiki dadin bethi pazentziareki,
Gogor üdüria gatik sekülan ez etsi.

Maitiaren gana zuazanin amorioz,
Bere florian bada ez izan lanjerus,
Neskatilak beitära ordian handius,
Bena gogatzen dira lüzin inganioz.

Goizan ipharra eta arratsen hegua
Hola balinbada kursian da denbora;
Barnatikegi ez har othoi amoriua;
Gazterik eztakizün xuri bilhua.



Ihizlariak eztizü atzaman erbia
 Thiatü gabetatik lehenik kolpia
 Gisa berian düzü oi ene zorthia,
 Nik ere hala dizüt gogatü maitia.

—Zazpi urthe badizü ene khariua
 Zütan ezarri nila ene amoriua;
 Geroztik nindiagozün trixterik gogua
 Beldürrez etzintzadan zü goga, gaxua.

—Zazpi urthez zitzaiztat onduan ebili
 Ene tronpatü nahiz malezian bethi;
 Orai egiten düzü aisa eni erri,
 Begiraizü Jinkuak zü etzitzan püni.

—Zelüko Jinko Jaunak badü pietate,
 Bere denbora dizü errota egile;
 Ürgüllütsien bortxaz konberti erazle,
 Feit horrez orhit zite, maitia zü ere.

—Ühaña ihizlari arrañ hurin deno,
 Muthilak ere trende amoros direno;
 Neskatiilen onduan doloruski mintzo,
 Desira kunplit eta haientzat akabo.

—Pikanki mintzo zira gizuner maitia,
 Ez, sunja bazeneza düzün estatia;
 Maite ezpalinbanü fidel izatia,
 Elitzeikezü komeni hola mintzatzia.

—Persuna bat denian plazeraki galdürrik
 Erramarkaule düzü inkietatürrik;
 Ene erranari othoi ez egin kasurik,
 Bestela eztükezü ni baizik galdürrik.

—Kontsola zite, kontsola, oi ene maitia,
 Eztate orai lüze gure jüntatzia;
 Zaldiz igorrien deizüt zuri txerkaria,
 Hartan gañen jinen zia zü eta frütia.

Zaldi xuri bat badit zure zerbütüküko,
 Zük plazer düzünian hartan juaiteko;
 Aita eta amari errezü adio,
 Ene ustez ezpeitzira ützülien haboro.

Araneko süjeta, ooren lilia,
 Neskatiila gaztetan parerik gabia;
 Hanitx plazer hartü düzü (düzün) haitatü lekha
 Barkoxen igaiteko zure zahartzia.



Khantoriak huntü nütian eskapilareki;
Süjeta den bezala ahal bezañ uneski;
Jinkuak deiziela bier algarreki
Mündian bizitze lüze ünioneki.